

AKTA

UDAL OSOKO OHIKO BATZARRA

Udal-Osoko Ohiko batzarra bildu da:

Eguna: 2026/05/27

Ordua: 18:00-ak

Tokia: Udaletxeko areto nagusian

Bertaratuak:

Alkatea: Joana Mendiboure

Zinegotziak:

EHBildu

Agustin Lekuona Irastorza
Olaia Lasa Olaziregi
Garazi Urdampilleta Astibia
Ibon Mitxelena Fernandez
Nora Velez del Burgo Zalakain
Jexux Olaziregi Bagües
Edorta Fernandez Etxepeteleku
Oihana Irastorza Gonzalez
Aiako Harria Gaztelumendi Gaztelumendi
Ekain Susperregi Ibarguren
Jon Albisu Mendiburu
Ibintza Irigorri Iriarte

EAJ-PNV

Janire Mitxelena Lekuona
Rafael Bergaretxe Urdampilleta
Maitane Larruskain Agirre
Iñaki Arbelaiz Mitxelena

Idazkaria:

Maria Victoria Joaristi Olariaga

Ezin etorria adierazi dute:

AZTERGAIK:

1. Aurreko batzarrari dagokion aktaren onartu zen.
2. 2026ko Baxoaren azterketak euskaraz pasatzearen aldeko sostengu mozioa onartu eta landu zen.
3. Foruen abolizioaren 150. urteurrena eta Alkateen mugimenduaren 50. urteurrenaren inguruan aurkezturiko mozioa onartu eta landu zen.
4. Oiartzungo haurreskola zerbitzua: Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergotik udalari transferitzea gero "Haurreskolak" Partzuergoaren esku uzteko erabakia hartu zen.

5. Plan Orokorraren ELI-6A eremuko “F1” lursailaren gainean Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoaren alde 2010 urtean eraturako azalera eskubidea amaitutzat ematea erabaki zen.
6. Oarsoaldea eta Udalaren arteko 2026 lankidetzeta-hitzarmena onartu zen.
7. Bake epaile ordezkoren izendapen-proposamena onartu zen.
8. 2026. urteko lanpostuen zerrendaren eta plantillaren aldaketa onartu ziren.
9. Lanbarren parke logistikoko Arkotz eta Arañaburu kaleen (Oiartzun) eta AP-8-aren arteko ezpondaren aldizkako azterketa geoteknikoaren zerbitzu kontratua onartu zen.
10. 2026rako Zerga Ordenantzaren lehenengo aldaketa onartu zen.
11. Arraguako ARR-1A eta ARR-1B eremuetan Babes Akustiko Bereziko Eremua (BABE-1) izendatzea eta eremuko Plan Zonala onartu ziren.
12. Udal araubideko Etxebizitza tasatuen eskatzaileen Erregistroaren Erregelamenduaren aldaketari jarritako alegazioa erantzun zen eta behin betikotzat onartu zen aipaturako erregelamendua.
13. ALT-6 eremuko mugan, ARBAISENEA S.L.ren jabetzako 18.538 finkaren 432,21 m²ko sailaren gainean zorbidea eratzea onartu zen.
14. Onura Publikoa duen 2.063.1 Pikokarate mendiko unada bat Arraztalo elkarteari emakida bertan behera uztea erabaki zen.
15. Beste organoen jardueraren jarraipenaren berri eman zen.
16. Ez zen eskari-galderarik egon.

-I-

AURREKO BATZARRARI DAGOKION AKTAREN ONARPENA.

2026ko apirilaren 29an egindako Udal Osoko ohiko bilkuraren akta onartu zen gehiengo absolutuz, aldeko 15 botorekin (EH Bildu 11, EAJ/PNV 4)

-II-

2026KO BAXOAREN AZTERKETAK EUSKARAZ PASATZEAREN ALDEKO SOSTENGU MOZIOA

Ikusirik Hezkuntza Kodearen 121-3 artikulua, azterketa eta konkurtsoetan eskualdeko hizkuntzen lekua aitortzen duena.

Ikusirik 2021eko abenduako zirkularra, hezkuntza sisteman « eskualdeetako hizkuntzen » sustapenari eta balorazioari buruzkoa, non aurreikusia den « Baxoan azterketak eskualde hizkuntzan aurkezten ahal » direla.

Kontuan hartuz, 2012tik euskarazko irakaskuntza segitzen zuten ikasleek, 2019ko erreforma arte, Baxoaren azterketa batzuk euskaraz pasatu zitzaketela, zehazki matematika eta historia-geografia.

Kontuan hartuz 2025eko ekainean argitaratu den ministeritzaren erabakiak, matematika azterketa aitzinatuko ibilmoldeari buruz, ez duela zehazten zein hizkuntzatan erantzun behar den, eta ondorioz orain arteko praktika bermatzen duela.

Kontuan hartuz hunkituak diren ikasleak, 2025-2026 ikasturtearen hastapenetik, azterketa hori euskaraz egiteko prestatu direla, aitzineko urteen jarraipenean, eta orain arte ez zaiela kontraktasunik jakinarazi. Kontuan hartuz prestakuntza hori Hezkuntzaren zerbitzu publikoaren konfiantza eta jarraipen printzipio batean oinarritzen dela.

Kontuan hartuz 2026ko ekaineko matematika azterketa aitzinatua euskaraz pasatzeko debeku baten iragartze berantiarra haustura bortitza eta arrazoirik gabekoa dela.

Kontuan hartuz erabaki horrek ehun ikasle baino gehiago zailtasunean ezartzen dituela eta segurtasunik gabeko egoera pedagogiko bat sortzen duela eta gazte hauen etorkizunerako ondorioak dituela.

Kontuan hartuz Frantziako Hezkuntza ministroak Baxoan hizkuntza minorizatuen lekua bermatzeko 2027rako neurriak hitzeman dituela, eta 2026ko azterketa aitzinatua egutegi horretan sartzen dela.

Kontuan hartuz 2012 urtetik abiatua zen matematiketako esperimentazioa segitzea aterabide erraza, pragmatikoa eta errespetuzkoa litzateke ikasleentzat eta Estatuaren engaiamenduaren adierazgarri.

Kontuan hartuz azterketak euskaraz aurkezteko hiru sareek (publikoak, pribatuak eta Seaskak) sustengatzen duten eskaera dela, eta eskaera hori aho batez sustengatua dela Ipar Euskal Herriko parlamentari eta ordezkari instituzionalen aldetik.

Oiartzungo Udal Osoko Batzarrak:

Sustengu osoa adierazten die euskarazko irakaskuntzan sare ezberdinetan ari diren ikasle, familia eta hezkuntza taldeei.

Galdegiten dio Bordeleko akademiako errektoreari, behin behinean, euskaraz pasatzeko aukera atxikitzea, 2012tik indarrean den esperimentazioaren jarraipen gisa, Matematika azterketa aitzinatua Lehen mailako ikasleentzat.

Dei egiten dio Frantziako Hezkuntza ministroari, 2026ko ekaineko azterketetan « eskualdeko hizkuntzen » egiazko kontsiderazioa berma dezan, luzamendurik gabe, bereziki matematikako aurreratu azterketan, Lehen mailako ikasleentzat eta Ahozko Proba Handian, Terminaleko ikasleentzat.

Oroitarazten du hizkuntza gutxiagotuen aldeko diskurtsoak ekintza zehatz eta koherenteetan islatu behar direla.

Goraki aldarrikatzen du Euskararekiko atxikimendua, gure lurraldeko ondare bizia baita.

Alkateak azalpena eman ondoren, Udaltzazak, gehiengo absolutuz, onartu du 2026ko Baxoaren azterketak euskaraz pasatzearen aldeko sostenguaren inguruko mozioa.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	15	11 EH Bildu, 4 EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

-III-

FORUEN ABOLIZIOAREN 150. URTEURRENA ETA ALKATEEN MUGIMENDUAREN 50. URTEURRENA

Foruen abolizioaren 150. urteurrena eta Alkateen Mugimenduaren 50. urteurrena direla eta

ZIOEN AZALPENA

2026. urteak garrantzi historiko eta politiko berezia du Euskal Herriarentzat. Izan ere, beste zenbait mugarriren artean –hala nola, Eusko Jaurilaritza eratu zela 90 urte betetzen dira– aurten bi efemeride nagusi ditugu: batetik, 1876ko uztailaren 21eko Foruen abolizioaren 150. urteurrena; eta, bestetik, 1976an Bergaran bildu zen Alkateen Mugimenduaren 50. urteurrena.

1876ko uztailaren 21eko legeak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru-erregimenaren abolizioa ekarri zuen, Bigarren Karlistadaren amaieraren testuinguruan. Nafarroa Garaia kasuan, foru-araubidearen eraldaketa eta burujabetza instituzionalaren murrizketa sakona lehenago gertatu zen, 1841eko Lege Hitzartuaren bidez, Lehen Karlistadaren ondoren. Lehenago, 1789-1790 urteen artean, Frantziako iraultzaren eskutik Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako euskal lurraldeen eskubide historikoen abolizioa gertatu zen. Hiru prozesu horiek, bakoitza bere une historikoan eta bere berezitasunekin, Euskal Herriko lurraldeek mendeetan garatutako instituzio, eskubide historiko eta burujabetza politikoaren galera eta murrizketa ekarri zuten. Erabaki haiek herri borondatearen gainetik ezarri ziren, eta ondorio sakonak izan zituzten Euskal Herriaren egituraketa instituzionalean, lurralde-artikulazioan eta autogobernuan.

1876ko abolizio hartatik mende bat geroago, 1976ko uztailaren 21ean, frankismoaren amaieraren testuinguruan eta trantsizio politikoaren atarian, Euskal Herriko hainbat udal ordezkari Bergaran bildu ziren. Alkateen Mugimendu hark Foruen abolizioaren mendeurrena baliatu zuen Euskal Herriaren nortasun nazionala, eskubide historikoak, udal tradizio demokratikoa eta autogobernurako nahia aldarrikatzeko.

1976ko adierazpen hartan jasotako espirituak gaurkotasun osoa du oraindik ere. Izan ere, udalerriek Euskal Herriaren historian izan duten eginkizun politiko eta instituzionala funtsezkoa izan da, eta gaur egun ere udal erakundeek herritarren borondate demokratikoaren adierazpide hurbilena izaten jarraitzen dute.

Bergaran izan ziren alkateek eta zinegotziek aitortu zuten ez zitzaizela samurra gertatu herriaren nahia eta erabakia ulertu eta argitara ematean beren gain hartu zuten erantzukizuna betetzea; hala ere, haiek uste zuten heldu zela garaia argi eta garbi adierazteko herriaren eskubide politikoak iraungi ezinak eta ukaezinak direla. Auziaren benetako funtsa ez baitzegoen foraltasun zaharrean, eskubide

historiko horiek eguneratzean baizik, foruek adierazten zituzten subiranotasun-eremuak euskal nazio ikuspegitik gaur egunera eta etorkizunera proiektatzean, alegia.

Orduan bezala, bizi dugun egoera honetan ere, desafio berriei ekin beharrez aurkitzen gara eta argi aldarrikatu nahi dugu, etorkizuneko gizarte erronkei erantzun baikor bat eman ahal izateko, euskal herritarren ahotsak bere lekua behar duela, hitzaren eta erabakiaren jabe behar dugula izan.

Oso garrantzitsua da une hau hartu behar ditugun erabakietan asmatzeko. Erantzukidetasun politiko eta sozialaren garaia da. Gure herria eta bere jendea aurrera ateratzeko ordua, garapen ekonomikoa gizarte justizia eta subiranotasun politikoa oinarritzat hartuta.

Erronka horiei guztiei ezin zaie behar bezala erantzun eskumen mugatuekin. Gaurko auziek gaurko tresnak eskatzen dituzte, eta Euskal Herriak autogobernu eta burujabetza handiagoa behar ditu bere etorkizuna bere herritarren borondate demokratikoaren arabera antolatzeko.

Horregatik, oroimen historikoaren aitortzak gaur egungo autogobernuaren inguruko eztabaida politiko eta instituzionala elikatu behar du.

Horregatik guztiagatik, Oiartzungo Udalbatzari honako akordioa har dezan proposatzen zaio:

AKORDIOA

Lehena.- Oiartzungo Udalak bat egiten du Alkateen Mugimenduaren 50. urteurrenaren eta Foruen abolizioaren 150. urteurrenaren oroitzapenarekin, eta bi efemeride horien garrantzi historiko, politiko eta instituzionala aitortzen du.

Bigarrena.- Udal honek aitortzen du Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako euskal lurraldeen eskubide historikoen abolizioa Frantziako iraultzarekin gertatu zela 1789 eta 1790 artean; horrez gain, aitortzen du 1841ean Nafarroa Garaian, eta 1876an Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan ezarritako foru-erregimenaren murrizketa eta abolizio prozesuek euskal lurraldeen jatorrizko eskubide historikoen eta burujabetza instituzionalaren galera ekarri zutela. Era berean, aldarrikatzen du eskubide horiek ez direla iraungi, ezta herri borondate demokratikoaren ordezkari kanpoko erabakiz deuseztatu ere.

Hirugarrena.- Udal honek berresten du Euskal Herria Europako herri guztien artean berezko nortasuna eta nazio izaera duen herria dela, historia, gizarte eta kulturako ondare berezi baten gordailu; bi estatutan kokatuta eta gaur egun hiru eremu juridiko-politiko ezberdinetan antolatuta dauden zazpi lurraldeetan duela bere leku geografikoa eta euskal nazioa osatzen duten herritarrek dutela beren etorkizun politikoa modu libre eta demokratikoan erabakitzeko eskubidea.

Laugarrena.- Udal honek aldarrikatzen du beharrezkoa dela foru integrazioaren eta burujabetza osoaren bidean urrats berriak egitea, eta, horretarako, Euskal Herriko lurraldeen eskubide historikoak eta autogobernua eguneratzea, gaur egungo behar demokratiko, sozial eta instituzionaletara egokituz.

Bosgarrena.- Udal honek aitortzen du udalerriek Euskal Herriaren historian izan duten eginkizun erabakigarria, bereziki foru tradizioan, udal demokrazian eta herri ordezkartzean; eta konpromisoa hartzen du etorkizunean ere Euskal Herriaren eraikuntza demokratikoan, erakunde demokratikoen rola indartzeko eta hauen artean, bereziki, udal erakundeena.

Seigarrena.- Udal honek bat egiten du 2026ko uztailaren 19ean Bergaran antolatuko den ekitaldi politiko- instituzionalaren helburuekin, Alkateen Mugimendua gogoratzeko, 1976ko udal ordezkarien ekarpena aitortzeko eta Euskal Herriaren eskubide historikoen aldeko konpromisoa berritzeko.

Alkateak azalpena eman ondoren, Udalbatzak, gehiengo absolutuz, onartu du Foruen abolizioaren 150. Urteurrena eta Alkateen mugimenduaren 50. urteurrenaren inguruan aurkezturiko mozioa.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	15	11 EH Bildu, 4 EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

-IV-

OIARTZUNGO HAURRESKOLA ZERBITZUA: OIARTZUNGO UDAL IKASTOLA
PARTZUERGOIK UDALARI TRANSFERITZEA GERO “HAURRESKOLAK”
PARTZUERGOAREN ESKU UZTEKO

Azalpenak hasi aurretik, Oihana Irastorza Gonzalezek eta Ibintza Iragorri Iriartek gaiarekin duten harremanarengatik aretoa uzten dute. Ondoren, Alkateak hitza hartzen du.

Lehenengoa.- Oiartzungo Udalak 1991n lanketa bat hasi zuen herriko haur hezkuntza zentroak bateratzeko xedez. Garai hartan, udalaren haur eskolak, beste bi haur eskola pribatuek, Haurtzaro Ikastolak eta Elizalde herri eskolak parte hartu bazuten ere, azkenean 1999an, udalak, auzoetako haur eskola pribatuek eta Haurtzaro Ikastolak osatu zuten Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoa. Eta azken 30 urte hauetan herriko haur eskolaren kudeaketa eraman du, Hezkuntza Sailaren udal haur eskolak finantzatzeko dirulaguntzaren urtez urteko sostenguekin.

Bigarrena.- 2024ko azaroan Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ahoz jakinarazi zuen udal haur eskolei egiten dien ekarpena bertan behera utziko zuela eta udal haur eskolei Hezkuntza Sailaren Haurreskolak Partzuergoan sartzeko gonbidapena luzatu zien. Ondoren, herri bakoitzak bere ibilbide eta gogoetak egin ahal izateko urtebeteko moratoria eskatu eta onartu zen.

Hirugarrena.- Dirulaguntza ez jasotzeak eta ondorioz, zerbitzu honek udal aurrekontuan duen eragina ikusirik, Oiartzungo Udalak ondorioztatu du Hezkuntza Sailaren babesik gabe ezinezkoa zaiola duela 30 urte sortutako Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoaren (OUIP) egitura bere horretan eustea.

Egoera berri horretan, Oiartzungo Udalak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin izandako hartu-emanen ondoren, 2026ko otsaileko ohiko osoko bilkuran honako bi proposamen hauek onartu zituen:

“1.- 2026-2027 ikasturterako Haurreskolak Partzuergoa Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoan sartzea, Oiartzungo herriak 30 urtean garatutako erreferentziazko proiektua garai berrietara eraldatzeko. Tokiko erakundeek Euskadiko 2016/2 legean jasota dagoenez, udalak dira herritarrengandik gertuen dauden erakunde publikoak. Zentzu horretan, udalak unean uneko herriko beharrak detektatzeko hurbileko begirada bermatuko lioke proiektuari eta Hezkuntza Sailak proiektua garatzeko ezinbesteko bideragarritasuna. Bakoitzak bere arduratik erantzunez eta aukera paregabe hau baliatuz, Oiartzungo Udalak eskua luzatzen dio Hezkuntza Sailari kalitatezko herri hezkuntza proiektu bat elkarlanean garatzeko.

2.- Oiartzungo Udalak adierazten du, erakunde publiko bat izanik, hala dagokion arduratik eta betekizunetik, prestutasun osoa duela OUIPen bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko egon daitezkeen aukera guztiak Hezkuntza Sailarekin lantzeko; bere lehentasuna 1. puntuan aditzera emandakoa izanik, 2026-2027 ikasturterako OUIP Haurreskolak Partzuergoan sartzeko aukera baztertu gabe.”

Laugarrena.- 2026ko otsailaren 27an aurrez aurreko bilera izan zuen udalak Hezkuntza Saileko eta Haurreskolak Partzuergoko ordezkariekin proposamena aurkezteko. 2026ko martxoaren 10ean legebiltzarkideak Urmendin izan ziren proiektua bertatik bertara ezagutzen, udalak gonbidatuta.

Horren guztiaren ostean udalak erantzunik jasotzen ez zuenez, 2026ko martxoaren 25ko udal osoko bilkuran, 10 laneguneko epean erantzuteko eskaera luzatu zion Hezkuntza Sailari eta 2026ko apirilaren 21eko udal osoko ez-ohiko bilkuran honako erabaki hau hartu zuen:

“Lehenengoa.- 2026-2027 ikasturterako Oiartzungo Udala Haurreskolak Partzuergoan integratzea eta herriko 0-2 adin tarteko haur-eskola zerbitzuaren kudeaketa Haurreskolak Partzuergoaren esku uztea.

Bigarrena.- Haurreskolak Partzuergoaren eta Oiartzungo Udalaren arteko udal haur eskola integratzeko jardura protokolo orokorra sinatzeko Alkatea ahalmentzea.

Hirugarrena.- Aurrekoaren ondorioz, eta gaur egun zerbitzua Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoaren bidez kudeatzen denez, beharrezko espediente administratiboak hastea, zerbitzu horren kudeaketa Oiartzungo Udalera itzularazteko, ondoren Haurreskolak Partzuergoan integratzea ahalbidetzeko.”

Eskaera berri honek ez du Haurreskola Partzuergoa Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoan integratzeko lehendik egindako proposamena baliogabetzen, baina bai eskatzen duen lanketa juridiko-administratiboa kontuan hartuta denboran geroraten.

IKUSIRIK Haurreskolak Partzuergoa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta hainbat udalerri borondatez osatutako toki-partzuergo publikoa dela, hiru urtetik beherako haurren asistentzia-eta hezkuntza-arreta eta haur eskolen kudeaketa integrara garatzeko sortua. Partzuergoaren izaera administrazio publikokoa da, eta bertan udalerriak baino ezin dira kide gisa integratu, estatutuetan ezarritako prozedura eta baldintzen arabera.

KONTUAN IZANIK Haurreskolak Partzuergoa udalerriek osatutako toki-partzuergo publikoa dela, eta bertako kide izaera administrazio publikoek —bereziki udalerriek— baino ez dutela. Ondorioz, gaur egun Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoari atxikitako zerbitzua zein langileak ezin dira zuzenean integratu Haurreskolak Partzuergoan; izan ere, zerbitzua eta langile horien lotura juridikoa udal partzuergoarekin dago, eta ez zuzenean udalarekin.

KONTUAN IZANIK Haurreskolak Partzuergoan integratzeko araubideak udalerrien parte-hartze zuzena eskatzen duela, eta ez dela posible gaur egungo udal partzuergo mistoaren bidez zuzenean integratzea, udalaren gain hartze hori ezinbesteko aurre-urrats juridikoa dela ondorengo integrazioa bideratzeko.

KONTUAN IZANIK testuinguru juridiko eta antolamendu-esparru horretan, eta aurretik azaldutakoarekin bat etorritik, ezinbestekoa dela aurretiaz Oiartzungo Udalak 0-2 urte bitarteko haur hezkuntzako zerbitzua zuzenean bere gain hartzea, bai eta zerbitzuari atxikitako langileak udalaren egituran integratzea ere, ondorengo integrazioa Haurreskolak Partzuergoan juridikoki bideragarria izan dadin.

KONTUAN IZANIK behin zerbitzua udalaren egituraren barruan formalki txertatuta eta haren titulartasuna udalaren esku dagoela bermatuta, posible izango dela ondoren zerbitzua eta hari lotutako baliabide pertsonalak Haurreskolak Partzuergoan integratzeko beharrezko mekanismo juridiko eta administratiboak aktibatzea. Neurri horrek, gainera, zerbitzuaren etenik gabeko prestazioa, langileen egonkortasuna eta erabiltzaileen eskubideak bermatzen ditu.

KONTUAN IZANIK azaldutako guztiaren ondorioz, udalaren xedea ez dela zerbitzu berri baten sorrera edo jarduera ekonomiko berri baten ezarpena, baizik eta lehendik existitzen den eta etenik gabe ematen ari den 0-2 bitarteko haur hezkuntza zerbitzu publiko baten berrantolaketa juridiko eta administratiboa. Helburua da zerbitzuaren jarraitutasuna, familien eta 0-2 bitarteko haurren arreta eta hezkuntza zerbitzu integrala eta egokia, eta zerbitzuari atxikitako langileen egonkortasuna bermatzea, ondoren zerbitzua Haurreskolak Partzuergoan integratzeko.

Horrenbestez, udal honetako Giza baliabideko teknikariak egindako txostena ikusirik eta Antolaketa eta Kontu Bereziak batzordeak 2026ko maiatzaren 21ean emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzari honako akordioa har dezan proposatzen zaio:

AKORDIOA

Lehenengoa.- Oñartzungo Udalak 0-2 urte bitarteko haur hezkuntzako zerbitzuaren kudeaketa udalaren eskuetara itzularaztea eta zuzenean bere gain hartzea, orain arte Oñartzungo Udal Ikastola Partzuergoak emandakoa, 2026ko abuztuaren 31ko ondorioekin.

Bigarrena.- 0-2 urte bitarteko haur hezkuntzako zerbitzuaren bereganatzearen eta hari atxikitako langileen transferentzia gauzatze aldera, udalaren plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda egokitze beharrezko espediente administratiboa izapidetzea agintzea. Horren ondorioz, Udalaren plantilla organikoaren eta lanpostuen zerrendaren aldaketa onartzea, 0-2 urte bitarteko haur hezkuntzako zerbitzuaren bereganatzearen eta hari atxikitako langileen transferentziaren ondorioz, lan kontratupeko hamaika hezitzaile plaza sortzeko eta plaza horiei dagokien haur-hezitzaile lanpostu berria sortzeko (hamaika dotazioekin), 2026ko abuztuaren 31ko eragin datarekin:

PLANTILA: LAN-KONTRATUPEKOAK					
IZENA	PLAZA	HUTSA	ESKALA	AZPIESKALA	MOTA
HEZITZAILE	11	0			

LANPOSTUEN ZERRENTA	
Izena:	Haur-hezitzailea
Izaera:	Lan-kontratupekoa
Dotazioa:	11
Titulazioa:	- Haur-hezkuntzako goi-mailako teknikari titulua. - Haur Hezkuntza espezialitateko maisu/maistra titulua. - Haur-Hezkuntzako graduaren titulua.
HE:	C1/C1
Derrigortasun-data	2026/05/27
Ordainsaria:	32.811,52 €
Dedikazioa:	Arrunta

Hirugarrena.- Udalak zerbitzuaren kudeaketa zuzenean bere gain hartzearen ondorioz, ahalik eta lasterren zehaztea zerbitzuari atxikitako baliabide pertsonalak, materialak eta gainerako baliabideak, Oñartzungo Udalarari atxikiko zaizkionak, jardueraren jarraitutasuna eta zerbitzuaren ohiko funtzionamendua beharrezko baldintzetan bermatzeko.

Laugarrena.- OUIPe transferitu beharreko langileak lehenbailehen zehaztea eta identifikatzea, langileen ordezkartza sindikalarekin egiten ari den negoziazio-prozesua amaitu ondoren, Oñartzungo

Udalari 2026ko abuztuaren 31ko ondorioekin transferitzeko, eta Haurreskolak Partzuergoan 2026ko irailaren 1etik aurrerako ondorioekin integratu eta subrogatzeko, Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 44. artikuluan aurreikusitako enpresa-ondorengotzaren ondorioz. Langile horiei, Oñartzungo Udalean aplikatu beharreko lan- eta kontratu-araubide beraren arabera, eta, kontrako itunik ezean, udal horretan zituzten lan-baldintza berberak aplikatuko zaizkie. Langileek lan-kontratupeko harremana izango dute, eta ez dute funtzionario izaerarik eskuratuko.

Bosgarrena.- Ebazpen honetan aurreikusitako ondorio-datak 0-2 urte bitarteko haur hezkuntzako zerbitzua Haurreskolak Partzuergoan integratzeko prozesuaren gauzatze eraginkorraren mende geratzen dira. Hori dela eta, integrazioa 2026ko irailaren 1ean gauzatzen ez bada, 2026ko abuztuaren 31rako eta 2026ko irailaren 1erako aurreikusitako ondorio-datak automatikoki atzeratutzat joko dira, eta zerbitzuaren udal-bereganatzearen eta langileen transferentziaren ondorio-data izango da integrazioa benetan gauzatzen den egunaren bezpera.

Alkateak ebazpen proposamena azaldu ondoren, Giza baliabideko teknikariak egindako txostena ikusirik eta Antolaketa eta Kontu Bereziak batzordeak 2026ko maiatzaren 21ean emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, gehiengo absolutuz, onartu du, Oñartzungo Udalak 0-2 urte bitarteko haur hezkuntzako zerbitzuaren kudeaketa udalaren eskuetara itzularaztea eta zuzenean bere gain hartzea, orain arte Oñartzungo Udal Ikastola Partzuergoak emandakoa, 2026ko abuztuaren 31ko ondorioekin.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	13	9 EH Bildu, 4 EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

-V-

PLAN OROKORRAREN ELI-6A EREMUKO “F1” LURSAILAREN GAINEAN OIARTZUNGO UDAL IKASTOLA PARTZUERGOAREN ALDE 2010 URTEAN ERATUTAKO AZALERA ESKUBIDEA AMAITUTZAT EMATEA

AURREKARIAK

Lehenengoa.- Oñartzungo Udalak 1991n lanketa bat hasi zuen herriko haur hezkuntza zentroak bateratzeko xedez. Garai hartan, udalaren haur eskolak, beste bi haur eskola pribatuak, Haurtzaro Ikastolak eta Elizalde herri eskolak parte hartu bazuten ere, azkenean 1999an, udalak, auzoetako haur eskola pribatuak eta Haurtzaro Ikastolak osatu zuten Oñartzungo Udal Ikastola Partzuergoa. Eta azken 30 urte hauetan herriko haur eskolaren kudeaketa eraman du, Hezkuntza Sailaren udal haur eskolak finantzatzeko dirulaguntzaren urtez urteko sostenguekin.

Bigarrena.- Oñartzungo Udalbatzak 2010eko abenduaren 1ean harturiko ebazpenean honakoa erabaki zuen:

“LEHENA.- Oñartzungo Udal Ikastola Partzuergoak eskatzen duen Oñartzungo Arau Subsidiarioen 6A eremuko “F” lursailari buruzko Xehetasun Azterketak banatzen duen mendebaldeko lur-zatia, F1 eremua, bere aldeko azalera-eskubidearen lagapena onartzea honako baldintzetan:

- Epea: 75 urte gehienez
- Prezioa: dohainik
- Eraikitze epea: ...”

Aipatu azalera-eskubidea egikaritzeko eskritura publikoa eman zen, 2011ko otsailaren 22an, María Aguirre notarioaren aurrean (prot. 125), eta bertan 19.007 erregistroko finkaren gainean azalera-eskubidea Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoaren alde sortu eta inskribatu zen.

Ebazpenarekin batera azalera-eskubidearen erregulazioa 2/2008 RDL, ekainaren 20koa, Lurzoru legearen testu bateratua onartzen duena, 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, autonomia erkidegoko Lurzoru eta Hirigintzari buruzkoa, eta Kode Zibilararen aipamena egiteaz gain, eraketa-tituluan honakoa sartzea erabaki zen:

- “Bukaera: azalera-eskubidea hirigintzako antolaketak ezarritako epean eraikiko ez balitz edo eskubidearen epealdia bukatu delako amaituko da. Bukaera lur jabeak eraikitakoa bereganatzen du, indemnizaziorik gabe. Hala ere, azalera-eskubidearen likidazioa gauzatzeko arauak adostu ahal izango dira. Azalera-eskubidearen amaierak eskubidea bere alde zuenak eskubidearen gainean eraturiko eskubide erreal edo pertsonak guztien amaiera ekarriko du. Lur jabetza eta azalera-eskubidea pertsona berdinak lortuko balitu, bakoitzaren zamak bakoitzarenak izaten jarraituko dute ahalik eta eskubidea amaitzen den arte”.

Gauzak horrela, eskriturarekin batera azalera-eskubidea arautzeko araubidea jaso zen, eranskinean jasota gelditu dena, eta hamargarren klausulak horrela dio:

“HAMARGARRENA.- Partzuergoaren alde eratutako azalera-eskubidea iraungitzeko arrazoiak.

1.- Partzuergoaren alde eratutako azalera-eskubidea iraungitzeko arrazoiak hauek dira:

...

b) Udalaren eta Partzuergoaren artean adostea. Hala ere, klausula honen zortzigarren atalean jasotzen dena bete beharekoa da.

...

f) Eskritura honetan jasotzen den azalera-eskubidea eratzea eragin duen jarduera hezitzailea bukatzea”.

Eta Zortzigarren klausula “itzulketa” arautzen du modu honetan:

“1.- Epea bukatuta azalera-eskubidea iraungitzen denean, Oiartzungo Udalak bereganatuko du eraikitakoaren jabetza dohainik, kontserbazio-egoera onean eta erabiltzeko moduan.

2.- Azalera-eskubidearen epea bukatzen denean, Oiartzungo Udalak bereganatuko du eraikitakoaren jabetza, eta ez du horregatik kale-ordainik ordaindu behar izango; era berean, baliogabetuta geratuko dira iraungitako azalera-eskubidearen gainean egon litezkeen eskubide errealak edo pertsonalak”.

Hirugarrena.- 2024ko azaroan Hezkuntza Sailak ahoz jakinarazi zuen udal haur eskolei egiten dien ekarpena bertan behera utziko zuela eta udal haur eskolei Hezkuntza Sailaren Haurreskolak Partzuergoan sartzeko gonbidapena luzatu zien. Ondoren, herri bakoitzak bere ibilbide eta gogoetak egin ahal izateko urtebeteko moratoria eskatu eta onartu zen.

Zerbitzuak udal aurrekontuan duen eragina ikusirik, Oiartzungo Udalak ondorioztatu du Hezkuntza Sailaren babesik gabe ezinezkoa zaiola duela 30 urte sortutako Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoaren (OUIP) egitura bere horretan eustea.

Udalak 2026ko apirilaren 21ean ospaturiko ezohiko udalbatzan harturiko akordioan 2026-2027 ikasturterako Oiartzungo Udala Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailak sorturiko Haurreskolak

Partzuergoan integratzea eta herriko 0-2 adin tarteko haur-eskola zerbitzuaren kudeaketa Haurreskolak Partzuergoaren esku uztea erabaki zuen.

Laugarrena.- Bere aldetik, Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoak 2026ko apirilaren 13an eta maiatzaren 14ean harturiko akordioan udalak 0-2 urte bitarteko haur hezkuntza zerbitzua Haurreskolak Partzuergoaren bitartez emango dela onartu eta haurreskola zerbitzua emateko 2010. urtean eraikitako Urmendi eraikinaren gaineko azalera-eskubidearen amaiera onartzea ebatzi zuen eta Harrigaineko behe solairuko lokalaren gaineko erabilera eskubidea ere.

Bostgarrena.- Udal idazkariak egindako txostenaren arabera, urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bateginaren 53. eta 54. artikulua aplikatu behar dira, azalera-eskubidearen amaieraren inguruan xedatzen dutelarik, azalera-eskubidea iraunaldia amaitu delako azkentzen denean, lurzoruaren jabeak bere egiten du eraikitakoaren jabetza, eta ez du inolako kalte-ordainik ordaindu behar, eskubidea eratzeko erabili den titulua edozein dela ere, eta azalera-eskubidedunak ezarritako eskubide erreal edo pertsonal guztiak azkenduko dira. Zentzu berean Lurzorua eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legea, ekainaren 30koa, IV tituluaren IV kapitulua, 128-130 artikuluetan ezarritakoa.

Eta ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Erakundearen Ondasunei buruzko Erregelamenduaren 109.etik 111.era bitarteko artikulua ondasunen lagapenaren amaierari buruz ezartzen duenean lagatako ondasunak, hala denean, erakunde lagatzailearen ondarrera itzuliko dira, ondasun eta akzesio guztiekin.

Seigarrena.- Erabakia hartzeko eskumena eta gehiengoaren inguruan Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.p) eta 47.2.ñ) artikulua aplikatuko dira.

Artikulu horiek azalera eskubidea zuzenean lagatzea gehiengo absolutua behar duela eta udalbatzari dagokiola arautzen dute, baina eskubidearen eraketaz ari dira. Kasu honetan eskubidea bertan behera utzi eta udalak ondasunaren jabetza osoa berreskuratzeaz ari garenez, eskumena udalbatzari bai baina gehiengo sinplearekin nahikoa izango litzatekeela iristen dio txosten honen egileak.

Zazpigarrena.- Prozedurari buruz, Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 32.1, 4 eta 36.1 artikulua, udalek bere ondasunen inbentarioan ondasunaz gain eskubide errealak ere sartu beharko dituztela eta Jabetza Erregistroan inskribatu behar dituztela xedatzen dute.

Zortzigarrena.- Espedientean jasota gelditu den bezala, udal zerbitzu teknikoek ELI-6Ako "F1" lursailaren eta instalazioen ikuskapena egin dute eta guztia egoera onean, begi bistako mantenu arazorik gabe eta konponketa lanaren beharrik gabe aurkitzen dela informatu dute.

Horrenbestez, udal honetako Udal arkitekto teknikariak eta Idazkariak egindako txostenak ikusirik eta Antolaketa eta Kontu Bereziak batzordeak 2026ko maiatzaren 21ean emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzari honako akordioa har dezan proposatzen zaio:

AKORDIOA

Lehenengoa.- Oiartzungo Arau Subsidiarioen 6A eremuko "F" lursailari buruzko Xehetasun Azterketak banatzen duen mendebaldeko lur-zatiaren, F1 eremuaren (19.007 erregistroko finka), alde 2010.ean eratutako azalera-eskubidea amaitutzat ematea Oiartzungo Udal Ikastolaren Partzuergoak eskubidea sortzeko atxiki zitzaion zerbitzu hezitzailea ez duelako 2026ko irailaren 1etik aurrera kudeatuko, eta OUIP Partzuergoak eta udalak horrela adostu dutelako.

Bigarrena.- Oiartzungo Udalak bere egiten du eraikitakoaren jabetza, ondare eta akzesio guztiekin, eta ez du inolako kalte-ordainik ordaindu behar. Era berean, azalera-eskubidedunak ezarritako eskubide erreal edo pertsonal guztiak azkenduko dira.

Hirugarrena.- Era berean, Harrigain eraikineko behe solairuko lokalaren erabileraren zesia ere amaitutzat ematen da eta udalak bereganatzen du osotasunean.

Laugarrena.- “F-1” lursailaren gaineko azalera-eskubidearen amaieraren ondorioak Haurreskolak Partzuergoan integrazioa ematen den egunaren bezperan izango dira eraginkorrak, ordurarte haurreskola zerbitzua Oiertzungo Udal Ikastola Partzuergoak ematen jarraituko duelako.

Bostgarrena.- Akordioa hauek Jabetza Erregistrora emango dira eta gastua udalak hartuko du bere gain. Era berean udal ondasunen inbentarioan ere jasoko da.

Seigarrena.- Oiertzungo herrian haurreskolaren zerbitzuak izango duen kudeaketa sistema berria ikusirik, URMENDIren instalazioetan OUI Partzuergoari sukaldea eta bere ardurapean utziko diren gainerako jarduera osagarriak egiteko lokalen erabilera zesia utziko diola bermatzea, adostuko diren baldintzetan. Betebehar hau gauzatuko da, behin Haurreskolak Partzuergoan integrazioarako hitzarmena sinatu ondoren, tramitatuko diren URMENDI eraikinaren erabilera-lagapen espedientearen bitartez.

Zazpigarrena.- Arrazoi berdinarengatik, kontuan izanda OUIP Partzuergoaren instalazioen finantzazioan Haurtzaro ikastolak ere parte hartu zuela, URMENDIren instalazioetan 2-3 urteko gelen zerbitzua emateko lokalen erabilera zesia Haurtzaro ikastolari utziko diola bermatzea, adostuko diren baldintzetan. Betebehar hau gauzatuko da, behin Haurreskolak Partzuergoan integrazioarako hitzarmena sinatu ondoren, tramitatuko diren URMENDI eraikinaren erabilera-lagapen espedientearen bitartez. Era berean, zesia gauzatzeko aurre baldintza Hezkuntza sailak Haurtzaro ikastolari 2-3 urte tarteko gelen baimena ematea izango da. Baimena lortu arte, 2-3 gelako zerbitzua emateko instalazioak erabiltzeko lagapena OUIP Partzuergoaren alde egingo da.

Zortzigarrena.- Ebazpen honetan aurreikusitako azalera-eskubidearen amaieraren ondorio-datak 0-2 urte bitarteko haur hezkuntzako zerbitzua Haurreskolak Partzuergoan integratzeko prozesuaren gauzatze eraginkorraren mende geratzen dira. Hori dela eta, integrazioa 2026ko irailaren 1ean gauzatzen ez bada, Oiertzungo Udal Ikastola Partzuergoak URMENDI eta Harrigain instalazioen erabilera osoa, orain arte bezalakoa, egingo du eta ondorio-datak automatikoki atzeratutzat joko dira, eta azalera eskubidearen amaieraren ondorio-data izango da integrazioa benetan gauzatzen den egunaren bezpera.

Alkateak ebazpen proposamena azaldu ondoren, Udal arkitekto teknikariak eta Idazkariak egindako txostenak ikusirik eta Antolaketa eta Kontu Bereziak batzordeak 2026ko maiatzaren 21ean emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, gehiengo absolutuz, onartu du, Plan Orokorraren ELI-6A eremuko “F1” lursailaren gainean Oiertzungo udal ikastola partzuergoaren alde 2010 urtean eratutako azalera eskubidea amaitutzat ematea

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	13	9 EH Bildu, 4 EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

Bozketa amaitu ondoren, Oihana Irastorza Gonzalez eta Ibintza Irigorri Iriarte aretora sartzen dira.

OARSOALDEA ETA UDALAREN ARTEKO 2026 LANKIDETZA-HITZARMENA ONARTZEA

Lehenengoa.- Oarsoaldea SAK, bere ordezkaria den Fernando Nebreda Diaz de Espadaren eskutik, 2026ko apirilaren 27an 3221 sarrera erregistro zenbakia duen idatzia aurkeztu du udalean. Bertan, Oñartzungo Udalarekin sinatu beharreko lankidetzak hitzarmen proposamena bidali dio udalari.

Bigarrena.- Oarsoaldea SAKo administrazio kontseiluak urtero onartzen du urte bakoitzari dagokion Gestio Plana eta Gestio Planaren kostua. Oarsoaldea osatzen duten 4 udalen artean banatzen da kostu hori, udal bakoitzak programa bakoitzean duen partaidetza kontuan hartuz.

Udalek egiten dituzten ekarpenak subentzioak bihurtu ahal izateko, Oarsoaldea SA enpresa eta Oarsoaldea osatzen duten 4 udalen artean lankidetzak hitzarmenak sinatzea ezinbestekoa da, bertan jasoko direlarik burutuko diren programak eta udalaren ekarpen osoa.

Hirugarrena.- Oñartzungo Udalaren kasuan, lankidetzak hitzarmenean finkatutako Gestio Planaren kostuaren partaidetza ondorengo taulan jasotakoa da:

LANKIDETZA HITZARMENA		OIARTZUN
EKONOMI ETA LURRALDE GARAPENERAKO ESTRATEGIA		85.790,49
PERTSONEI ARRETA		123.516,02
OARSOALDEA HELMUGA		85.063,50
HIRI BERRIZTAPENA ETA MUGIKORTASUNA		53.126,85
EUSKARA		54.966,69
KONTSUMO BULEGOA		13.596,89
ANTOLAKETA ETA ZEHARKAKO ELEMENTUAK		509,15
GUZTIRA		416.569,60

Horrenbestez, 2026an Oarsoaldeari hitzarmen eta enkargu guztiak direla eta egingo zaien gehieneko ordainketa 416.569,60 € izango litzateke.

Espedientean justifikazio-txostena jaso da. Udal kontu-hartzaileak txostena egin du eta idazkariak aldeko txostena egin du, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikulutik 53.era bitartekoetan ezarritakoaren arabera.

Horrenbestez, udal honetako Kontuhartzaileak eta Idazkariak egindako txostenak ikusirik eta Antolaketa eta Kontu Bereziak batzordeak 2026ko maiatzaren 21ean emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzari honako akordioa har dezan proposatzen zaio:

AKORDIOA

Lehenengoa.- Oarsoaldea SA eta Oñartzungo Udalaren arteko lankidetzak hitzarmena (eranskin bezala doana) onartzea eta enkargua eta hitzarmen espezifikoak abian jartzea.

Bigarrenen.- Alkatea baimentzea hitzarmena sinatzeko, baita bere osagarri diren beste edozein dokumentu sinatzeko ere.

Hirugarrenen.- 416.569,60 euroko gastua indarrean dagoen udal aurrekontuko partida hauei egozte:

- 1 0201.421.150.00.01 Ekarpena: Oarsoaldea S.A. Hiri Birgaik: 53.126,85 €
- 1 0223.421.241.00.01 Dirulaguntza: Oarsoaldea S.A. Enpleguaren sustapena: 137.622,07 €
- 1 0223.421.433.00.01 Dirulaguntza: Oarsoaldea S.A. Enpresa garapena: 85.790,49 €
- 1 0321.421.335.00.01 Oarsoaldea - Eskualdeko euskararen normalizazioa: 39.837,07 €
- 1 0352.421.326.00.01 Dirulaguntza Oarsoaldea: eskola kirola: 15.129,62 €
- 1 0361.421.432.00.01 Ekarpena Oarsoaldea: turismo-Cicerone: 85.063,50 €

Alkateak ebazpen proposamena azaldu ondoren, Kontuhartzaileak eta Idazkariak egindako txostenak ikusirik eta Antolaketa eta Kontu Bereziak batzordeak 2026ko maiatzaren 21ean emandako diktamenarekin adostasunean, gehiengo absolutuz, onartu du, Plan Orokorren ELI-6A eremuko "F1" lursailaren gainean Oñartzungo udal ikastola partzuergoaren alde 2010 urtean eratutako azalera eskubidea amaitutzat ematea

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	15	11 EH Bildu, 4 EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

-VII-

BAKE EPAILE ORDEZKOAREN IZENDAPEN-PROPOSAMENA ONARTZEA

Lehenen.- EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko Gobernu Idazkaritzaren 2026ko martxoaren 2ko idatziaren bidez (sarrera-erregistro zenbakia: 1879), udal honi jakinarazi zaio Oñartzungo udalerrri honetako Ordezko Bake Epailen izendatu zutela lau urteetarako eta epea igaro dela ondorioz, eskatu du Udal Osoko Bilkurak kargu horretarako lau urteko ordezko bake epaile titular berria hauta dezan.

Bigarrenen.- Botere Judizialaren 6/1985 Lege Organikoaren 101., 102., eta 103. artikuluetan eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkurak 1995eko ekainaren 7an onartutako bake Epailen buruzko 3/1995 Erregelamenduan oinarrituta, 2026ko martxoaren 4ko 462 zenbakiko Dekretu bidez, Oñartzungo bake epaile ordezkoa hautatzeko espedientea hasi zuen Udalak.

Halaber, interesdunek haien eskaerak aurkez zezaten hamabost egun balioduneko epea ireki zen, 2026ko martxoaren 31etik apirilaren 23 arte, 2026ko martxoaren 30eko 59 zenbakiko GAO-n argitaratutako iragarki bidez, bai eta EAEko Auzitegi Nagusiko, Epaitegi Dekanoko, Oñartzungo Bake Epaitegiko eta Udaleko iragarki oholetan jarritako iragarki bidez ere.

Hirugarrenen.- Emandako epean hiru eskaera erregistratu dira, 2026ko apirilaren 13, 14 eta 17an, 2807, 2868 eta 3020 sarrera-erregistro zenbakiarekin hurrenez hurren:

1. Hautagaia:

Izena: JOSE JAVIER ADURIZ ARRUTI
N.A.: 34088477Q

Jaiotza data: 1967/03/20
Helbidea: Oiartzunen
Ikasketak: Soziologian lizentziatua.
Lan eskarmentua: Oiartzungo bake epaile ordezkoa

2. Hautagaia:

Izena: IRUNE SUBERBIOLA GARBIZU
N.A. 34091431A
Jaiotza data: 1977/03/23
Helbidea: Oiartzunen
Ikasketak: Zuzenbidean lizentziatua, Merkatu finantzarioen eskubidearen inguruko masterra, Zuzenbidean Doktorea, Ekonomia gradua burutzen.
Lan eskarmentua: UPV/EHU-n 2006tik 2012ra irakasle postuan lanaldi desberdinetan. Bizkaiko UNED-en irakasle tutore. Hainbat ikerketa-proiektuetan parte hartu du eta argitalpen desberdinak egin ditu.

3. Hautagaia:

Izena: NAIARA MUÑAGORRI QUILES
N.A. 44573276N
Jaiotza data: Ezezaguna
Helbidea: Zabaleta 2, 1 sotoa, 12zbk. Donostia (20002)
Ikasketak: Ezezaguna
Lan eskarmentua: Urnietako ordezko Bake Epailea.

Laugarrena.- Hirurak betetzen dituzte baldintzak eta korporazioak egokiena jotzen duena aukeratu dezake.

Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Toki Entitateen Antolaketa, Funtzionamenduari eta Araubide Juridikoari buruzko Erregelamenduaren 175. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, honako ebazpen-proposamena luzatzen zaio batzordeari:

Horrenbestez, udal honetako Idazkariak egindako txostena ikusirik eta Antolaketa eta Kontu Bereziak batzordeak 2026ko maiatzaren 21ean emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzari honako akordioa har dezan proposatzen zaio:

AKORDIOA

Lehenengoa.- Udalak Jose Javier Aduriz Arruti jauna udalerrri honetako bake-epaile ordezko gisa hautatzea, Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 101. artikuluan eta Bake Epaileen ekainaren 7ko 3/1995 Erregelamenduko 4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bigarrena.- Erabaki honen ziurtagiria Donostiako Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko Epaitegietako Dekanotzari, bai eta EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko Gobernu Salari ere, dagokion izendapena egin dezan.

Hirugarrena.- Erabaki honen berri ematea eskabidea aurkeztu duten interesdunei, jakinaren gainean egon daitezen eta ondorioak izan ditzaten.

Alkateak ebazpen proposamena azaldu ondoren, udal honetako Idazkariak egindako txostena ikusirik eta Antolaketa eta Kontu Bereziak batzordeak 2026ko maiatzaren 21ean emandako diktamenarekin

adostasunean, gehiengo absolutuz, onartu du, Bake Epaile ordezkoren izendapen-proposamena onartzea.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	15	11 EH Bildu, 4 EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

-VIII-

2026. URTEKO LANPOSTUEN ZERRENDAREN ETA PLANTILLAREN ALDAKETA ONARTZEA

AURREKARIAK

Udalak 2026. urterako lanpostuen zerrenda eta plantilla aldatzeko beharra du; batetik, Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoak gaur egun eskaintzen duen 0-2 urte bitarteko haur hezkuntzako zerbitzua Oiartzungo Udalak zuzenean bere gain hartzearen ondorioz, zerbitzu horri atxikitako langileak udal egituran integratu behar direlako, eta, horrenbestez, haur-hezitzaileen lanpostu eta plaza berriak sortu behar direlako.

Bestetik, kontratazioko teknikaria-letradu lanpostuaren konfigurazioa egokitu beharra dago, lanpostu horren izaera juridiko-administratiboarekin eta udalaren egungo antolaketa-beharrekin bat etorritz. Horretarako, lanpostua administrazio bereziko eskalaz gain administrazio orokorreko eskalara ere zabaltzea proposatzen da, bai eta hornidura-prozesuan Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetako enplegatu publikoek parte hartu ahal izatea ere, lanpostua betetzea errazteko eta zerbitzuaren egonkortasuna bermatzeko.

Horrenbestez, udal honetako Giza baliabideko teknikariak egindako bi txostena, Idazkariak eta Kontuhartzaileak egindako txostenak ikusirik eta Antolaketa eta Kontu Bereziak batzordeak 2026ko maiatzaren 21ean emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzari honako akordioa har dezan proposatzen zaio:

AKORDIOA

Lehenengoa.- Udalaren plantilla organikoaren eta lanpostuen zerrendaren aldaketa onartzea, lan kontratupeko hamaika hezitzaile plaza sortzeko eta plaza horiei dagokien haur-hezitzaile lanpostu berria sortzeko (hamaika dotazioekin), eta kontratazioko teknikaria-letradu lanpostuari dagokion plaza administrazio orokorrera ere zabaltzea bai eta lanpostu horren hornidura-prozesuan Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetako enplegatu publikoei parte hartzeko aukera ematea ere. Aldaketak eranskinean jaso dira.

Bigarrena.- Plantilla organikoari dagokionez espedienteak jendaurrean jartzea, hamabost egun baliaduneko epean, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 126.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, interesdunek aztertu eta erreklamazioak edo iradokizunak aurkez ditzaten. Erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, onartutzat jo dadila behin betiko.

Hirugarrena.- Lanpostuen zerrendaren aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Alkateak azalpenak amaitu ondoren, Janire Mitxelena zinegotziak hitza hartzen du.

“ Subrogazioa eta Urmendiko gaiaren harira hau da, laugarren eta bosgarren gaiei erreferentzia eginez, gai horien espedienteek baieztatzen dute hilabeteetan zehar esaten ari ginena.

Txostenek argi eta garbi diote gaur arteko egitura ezin zela bere horretan mantendu.

Beraz, gaur hemen gertatzen ari dena ez da inongo inposaketa baten ondorio hutsa. Gaur hemen gertatzen ari dena da hilabeteetan zehar ukatu den errealitate administratibo eta juridikoa azkenean onartu behar izan dela.

Eta hori da benetako porrota.

Porrota da herritarrei hilabeteetan zehar bestelako errealitate bat saltzea.

Porrota da familien artean ziurgabetasuna sortzea.

Porrota da langileen egonkortasunarekin hilabeteetan jolastea.

Porrota da integrazioa zela juridikoki bideragarria zen biderik egokiena jakinda, herrian konfrontazio politikoa elikatzea.

Hilabeteetan zehar “eredu propioaren defentsa”, “erasoak”, “inposaketak” eta “beste aukerarik ez” entzun ditugu behin eta berriz. Plataforma bat sortu da. Panfletoak banatu dira. Herrian errelato emozional bat eraiki da.

Baina guzti honetan bada oso agerikoa den zerbait: errelato emozionala lehenetsi da datu objektiboen gainetik.

Sentimenduak errespetagarriak dira. Baina erakunde publiko batek ezin ditu erabakiak soilik sentimenduetan oinarritu. Erabakiak datuetan, txostenetan eta errealitate juridikoan oinarritu behar dira.

Eta gaur hemen ekarritako espedienteek erakusten dute zergatik: errealitatea ez zetorrelako bat herrian zabaldu den errelatoarekin.

Hilabeteetan zehar herrian emozioak banatu dira; gaur, ordea, espedienteek datuak jartzen dituzte mahai gainean.

Eta gaur gainera entzun behar dugu EAJ-PNVk gai hau udal gobernuaren aurka erabiltzen ari dela.

Baina gauzak argi esan behar dira: oposizioaren lana galderak egitea da.

2025eko martxotik hona pleno guztietan galdetu dugu zer egingo zuen udal gobernuak, zein zen benetako egoera eta zein zen plan alternatiboa.

Eta erantzunen orde, isiltasuna, ebasibak eta errelato politikoa jaso ditugu.

Beraz, ezin da orain oposizioari leporatu hilabeteetan zehar udal gobernuak berak argitu nahi izan ez duena galdetzea.

Kontrola egitea eta azalpenak eskatzea ez da erabilera politikoa. Hori da oposizioaren ardura.

Erabilera politikoa ez da galderak egitea. Erabilera politikoa da familien eta langileen kezka errelato emozional eta konfrontazio politikorako erabiltzea.

Eta galdera politiko nagusia oso sinplea da: zein izan da egoera hau guztia urtebetez luzatzearen arrazoia?

Zein izan da herrian ziurgabetasuna, tentsioa eta konfrontazioa elikatzearen arrazoia, azkenean gaur hemen egiten ari dena EAJ-PNVk 2025eko martxoan bertan planteatu zuena bada?

Benetako galdera ez da gaur zergatik integratzen den. Benetako galdera da zergatik ez den lehenago egin.

Zergatik ez zen urtarrilean bertan argi hitz egin?

Zergatik ez ziren familiei eta langileei hasieratik egia eta errealitatea azaldu?

Zergatik luzatu da egoera hau guztia, azkenean udal gobernuak berak integrazioa eskatzen amaitzeko?

Eta herritarrek galdera oso sinple bat egiten dute: benetan erdua hain sendoa, hain bideragarria eta hain erreferentea bazen... zergatik eskatu du integrazioa udal gobernuak berak?

Eta erantzuna ere oso argia da: zerbitzua doakoa izaten jarraitzeko eta zerbitzuaren egonkortasun ekonomikoa, laborala eta hezitzailea bermatzeko, integrazioa zela juridikoki bideragarria zen biderik egokiena.

Eta hori da erakunde publiko baten benetako ardura: zerbitzua eta egonkortasuna bermatzea, ez errelato politiko bati eustea.

Horregatik da hain larria gaur egun oraindik ere biktimismoaren eta propaganda politikoaren bidetik jarraitzea.

Ardura kanpora begira jartzen da etengabe, baina ezin da ahaztu integrazioa udal gobernuak berak eskatu duela.

Ezin da herriari hilabeteetan zehar “kanpoko eraso” baten errelatoa saldu, azken erabakia hemen bertan hartu denean.

Eta gaur hemen ekarritako espedienteek gauza bat uzten dute argi: azkenean, errealitate administratiboak eta txosten teknikoek errelato politikoak gainditu dute.

Guk hasieratik argi izan dugu lehentasuna zein zen: zerbitzua bermatzea, familien lasaitasuna bermatzea eta langileen egonkortasuna bermatzea.

Beste batzuk, ordea, denbora gehiegi egon dira errealitateari aurre egin beharrean errelato politiko bati eusten.

Eta gauza bat ere gogorarazi nahi dut.

2025eko martxoan EAJ-PNVk Urmendiren publikazioaren inguruko mozioa erregistratu zuenean, udal gobernuak mozio hori ez aurkezteko eskatu zigun.

Beraz, zaila da gaur entzutea EAJ-PNVk sortu duela gatazka edo gai hau politikoki erabili duela.

Guk hasieratik mahai gainean jarri genuen gaur hemen egiten ari den bidea.

Eta gaur hemen ikusten dena ez da garaipen bat.

Gaur hemen ikusten dena da urtebetez luzatu den porrot politiko baten azken konstatazioa.

Urtebete, non errelato emozional bat elikatu den, familien eta langileen artean ziurgabetasuna sortu den, eta ardura etengabe kanpora begira jarri den.

Eta larriena da azkenean herrian gatazka artifizial eta fikziozko bat sortu dela, udal gobernuak berak bazekienean egoera honek integrazioaren bidean amaituko zuela.

Horregatik, gaur espediente hauek gauza bat uzten dute argi: errealitate administratiboa eta juridikoa bat zen, eta herrian zabaldu den errelato politikoak beste bat oso desberdina.

Eta hori bai dela haurreskola baten eta herri oso baten inguruan egindako erabilera politiko larria.

Eta horregatik, gure taldeak aldeko bozka emango du.

Ez gaur hemen ekarritako kudeaketa politikoa partekatzen dugulako, baizik eta hasieratik defendatu dugun bezala, zerbitzua, doakotasuna eta langileen zein familien egonkortasuna bermatzea lehentasuna delako.

Janire Mitxelenak esandakoari hainbat aipamen egin nahi dizkiola adierazi du Alkateak. Lehenik eta behin, Janire Mitxelenak martxoan EAJ/PNVk aurkeztutako mozioaren inguruan, azaldu du ez zela erregistratu, epea kanpo aurkeztu zelako.

Janire Mitxelena andereak hitza hartu du eta argitu du mozioa bai aurkeztu zela, baina Udal Gobernuak eskatu zuela ez erregistratzeko. Zehaztu du Garbitaniaren inguruan aurkeztu zutena izan zela erregistratu ez zen mozioa.

Alkateak berriro hitza hartu du eta aurreko azalpenekin jarraitu du.

Orain arte Urmendin eman den zerbitzua goraipatu du Alkateak. Azaldu du urte luzez herriari eskaini zaion zerbitzu eraginkorra izan dela, eta hori familiei egindako hainbat inkestatan islatu dela azpimarratu du.

EAJ/PNVk porrota aipatzen duela adierazi du, baina bere ustez egokiagoa dela garaipenaz hitz egitea. Bere esanetan, garaipena izan da urte luzez udalak eskaini duen zerbitzua mantentzeko aukera izatea. Nabarmendu du familia, irakasle eta langile askok egindako balorazio positiboak kontuan hartu beharrekoak direla, eta zerbitzua zuzenean jaso dutenek ez ezik, herritarrek oro har zerbitzua mantentzeko erakutsi duten nahia ere garaipenaren adierazle dela.

Bestalde, EAJ/PNVk prozesua ez dela argia izan azpimarratu duela aipatu du, eta horren harira Alkateak onartu du prozesuak zailtasun handiak izan dituela, eta horiek epeak luzatzea eragin dutela. Hala ere, azpimarratu du hori ez dela utzikeriagatik izan, kontuan hartu behar dela Oñartzungo Udal Partzuergoa Euskadin sortutako lehenetarikoa izan zela, eta horrek beste herri askok izan ez dituzten aukerak eman dituela. Horregatik, aukera horiek baliatuta egin du aurrera udal gobernuak prozesuan, zerbitzua udalaren esku mantendu ahal izateko. Helburu hori lortu ez denez, beste aukera batzuk jorratu behar izan dituztela azaldu du, Hezkuntzari, ahal den neurrian, partzuergoak eskaintzen duen zerbitzuari hobekuntzak gehitzeko asmoz.

Azkenik, azpimarratu du goraipatzekoa dela Oñartzungo Udal Partzuergoak urte luzez emandako zerbitzua, eta gobernu taldeak hori mantentzen saiatu dela. Hala ere, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ematen zituen dirulaguntzak eten direnez, udalarentzat ezinezkoa dela zerbitzu hori ematen jarraitzea.

Ondoren, Janire Mitxelena zinegotziak hartu du hitza.

Argitu du bere taldeak inoiz ez duela zerbitzua zalantzan jarri, eta zerbitzua ona dela nabarmendu du. Hala ere, adierazi du garaipena ez dela Alkateak aipatutakoa, baizik eta zerbitzua dohainik izatea bermatzea.

Era berean, gogorarazi du Hezkuntza Sailak 2025eko bukaerarako jakinarazia zuela dirulaguntzak etengo zirela, eta urtarilaren amaiera zela erabakiak hartzeko epea.

Horrez gain, Alkateak esandakoaren arabera Oñartzungo Udal Partzuergoa Euskadiko lehena izan zen; zinegotziak, ordea, kontraesan du hori, eta Villabonako Udal Partzuergoa ere garai berekoa dela azpimarratu du.

Ondoren, nabarmendu du ekarpenak egitea garrantzitsua dela, baina hauek ondo landu eta aztertuak izan behar direla, egindako ekarpenak baldintza horiek betetzen dituzten zalantzan jarri du eta gogorarazi du beraiek gai hori bai batzordean bai plenoan jada aipatu izan dutela.

Amaitzeko, nabarmendu du benetako garaipena dela zerbitzuak doakoa eta unibertsala izaten jarraitzea.

Alkateak argitu nahi izan du berak ez duela esan Oñartzungo Haurreskola Partzuergoa izan zenik lehena eratzen baizik eta Oñartzungo Udal-Ikastola Partzuergoa izan zela udal-ikastola partzuergoen aitzindari.

Esandakoak amaitu ondoren, udal honetako Giza baliabideko teknikariak egindako bi txostena, Idazkariak eta Kontuhartzaileak egindako txostenak ikusirik eta Antolaketa eta Kontu Bereziak batzordeak 2026ko maiatzaren 21ean emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, gehiengo absolutuz, onartu du 2026. urteko lanpostuen zerrendaren eta plantillaren aldaketa.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	15	11 EH Bildu, 4 EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

-IX-

LANBARREN PARKE LOGISTIKOKO ARKOTZ ETA ARAÑABURU KALEEN (OIARTZUN)
ETA AP-8-AREN ARTEKO EZPONDAREN ALDIZKAKO AZTERKETA GEOTEKNIKOAREN
ZERBITZU KONTRATUA

AURREKARIAK

Oiartzungo Lanbarren parke logistikoko Arkotz eta Arañaburu kaleen (Oiartzun) eta AP-8-aren arteko ezpondaren aldizkako azterketa geoteknikoaren zerbitzu kontrataziorako espedienteari (2026KO160002) hasiera eman zaio.

Espedientean barneratuta daude kontratuaren beharraren txostena/justifikazio memoria-kontratua loteetan ez banatzea, beharra eta baliabide-urritasuna justifikatzen dituen-, Baldintza Teknikoen Agiria eta Baldintza Ekonomiko-Administratibo Zehatzen Agiria; horien arabera zerbitzu kontratu administratibo baterako espedientea izapidetuko da, eta horren esleipena lehiaketa aske bidez izatea proposatzen da.

Udal kontu-hartzaileak kontratua egiteko gastuaren baimena eman du eta aurrefiskalizazio txostena egin du.

Honakoak dira kontratuaren ezaugarri nagusiak:

- Kontratuaren xedea: Lanbarren parke logistikoko Arkotz eta Arañaburu kaleen (Oiartzun) eta AP-8-aren arteko ezpondaren aldizkako azterketa geoteknikoaren zerbitzua kontratatzea.
- Unitate sustatzailea: Hirigintza.
- Kontratu mota: Zerbitzu kontratua.
- Aurrekontua: kontratuaren iraupen osorako (luzapenik aurreikusi gabeko 5 urteko kontratua denez hasierako iraupena eta iraupen osoak bat egiten dute) 223.719,01 eurokoa da, gehi BEZari dagozkion 46.980,99 euro, denera 270.700,00 eurokoa (BEZa barne).
- Balio zenbatetsia: 223.719,01 euro (BEZik gabe)
- Epea: 5 urte kontratua sinatzen denetik, luzapenik gabe.

Kontratazio teknikariaren aldeko txostena kontutan izanik eta espedientean jaso diren dokumentuen baitan, dagokion irizpena jaso ondoren,

Horrenbestez, udal honetako Kontratazio teknikariaren aldeko txostena kontutan izanik, espedientean jaso diren dokumentuen baitan eta Antolaketa eta Kontu Bereziak batzordeak 2026ko maiatzaren 21ean emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzari honako akordioa har dezan proposatzen zaio:

AKORDIOA

Lehena.- Oiartzungo Lanbarren parke logistikoko Arkotz eta Arañaburu kaleen (Oiartzun) eta AP-8-aren arteko ezpondaren aldizkako azterketa geoteknikoaren zerbitzuaren kontrataziorako espedientea onartzea, jarraituko den prozedura irekia izango delarik, erregulazio harmonizatukoa, eta horri hasiera ematea. Halaber, onartzea kontratua araupetzeko Baldintza Ekonomiko-Administratibo Zehatzen Agiria, Baldintza Teknikoen Agiria eta baita gastua ere.

Gastua aurrekontuko honako partiden kontura izango da:

- 1 0201.601.150.00.02 2026 (5371) (A 12 2026-1113)

Bigarrena.- Kontratazio mahaia Oiartzungo Udaleko Kontratazio Mahai iraunkorra da, honela osatua dagoena:

Lehendakaria	Agustin Lekuona Irastorza	2. Alkateordea	Ordezkoa	Garazi Urdampilleta Astibia	Alkateordea
Bokala	Janire Michelena Lecuona	Zinegotzia	Ordezkoa	Rafael Bergaretxe Urdanpilleta	Zinegotzia
Bokala	Oiartzungo Udaleko idazkaria		Ordezkoa	Oiartzungo Udaleko giza baliabideetako teknikaria	
Bokala	Oiartzungo Udaleko kontu-hartzailea		Ordezkoa	Oiartzungo Udaleko diruzaina	
Bokala	Oiartzungo Udaleko kontratazio teknikaria		Ordezkoa	Oiartzungo Udaleko giza baliabideetako teknikaria	
Bokala	Oiartzungo Udaleko jardueretako arkitekto teknikoa		Ordezkoa	Oiartzungo Udaleko obra eta zerbituetako arkitekto teknikoa	
Idazkaria	Oiartzungo Udaleko kontratazio teknikaria		Ordezkoa	Oiartzungo Udaleko idazkaria	

Hirugarrena.- Kontratuaren arduraduna izendatzea udal arkitektoa.

Laugarrena.- Azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuaren 9/2017 Legearen 63. artikulua agintzen dituen eta kontratu honen lizitazio prozedura burutzeko beharrezkoak diren argitalpenak egitea.

Bostgarrena.- Kontratu honen iragarkia Europar Batasuneko Argitalpenen Bulegora bidaltzen den egunetik zenbatzen hasita 30 egun naturaleko epea ematea proposamenak aurkezteko.

Alkateak ebazpen proposamena azaldu ondoren, udal honetako Kontratazio teknikariaren aldeko txostena kontutan izanik, espedientean jaso diren dokumentuen baitan eta Antolaketa eta Kontu Bereziak batzordeak 2026ko maiatzaren 21ean emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, gehiengo absolutuz, onartu du, Lanbarren parke logistikoko Arkotz eta Arañaburu kaleen (Oiartzun) eta AP-8-aren arteko ezpondaren aldirikako azterketa geoteknikoaren zerbitzu kontratua.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	15	11 EH Bildu, 4 EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

-X-

2026RAKO ZERGA ORDENANTZAREN LEHENENGO ALDAKETA

AURREKARIAK

Lehenengoa. Udala 2026rako Zerga Ordenantzaren lehen aldaketa izapidetzen ari da, 2026ER010002 espedientean.

Bigarrena. Espedienteak bi proposamen tekniko bereizi jasotzen ditu, biak zerbitzu publikoak emateagatiko tasen ordenantza fiskaletan txertatzeko:

- 9.7 bis epigrafea: industria-poligonoetako hondakinen bilketa eta tratamenduagatiko tasa.
- 9.15 epigrafea: Udal Musika Eskolaren zerbitzua emateagatiko tasa.

Hirugarrena. Mendiak eta Ingurumen Sailak industria-poligonoetako hondakinen tasari buruzko txosten tekniko-ekonomikoa egin du. Txosten horretan jasotzen dira zerbitzuaren aurreikusitako kostua, kanpoko diru-sarrerak, tasaren bidez aurreikusitako diru-sarrerak eta ordenantza fiskalean txertatu beharreko testu-proposamena. Halaber, espedientean “Datuen azalpena” izeneko eranskin ekonomikoa jaso da.

Laugarrena. Proposamen horren arabera, Oiartzungo industria-poligonoetan sortzen diren udal-hondakin eta hondakin asimilagarrien bilketa eta tratamendu zerbitzuaren antolaketa-eredua aldatuko da. Orain arte zerbitzua San Marko Mankomunitatearen bidez eman izan da, eta aurrerantzean Udalak Garbitania Zero Zabor S.L. bitarteko propioaren bidez antolatuko du zerbitzua, dagokion enkarguaren espedientean jasotako baldintzetan.

Bosgarrena. Kultura Sailak Udal Musika Eskolaren tasari buruzko txosten tekniko-ekonomikoa egin du. Txosten horretan jasotzen dira zerbitzuaren aurrekariak, aurreikusitako kostua, matrikula eta kuoten bidezko diru-sareren aurreikuspena, hobariak, kudeaketa-arauak eta ordenantza fiskalean txertatu beharreko testu-proposamena.

Seigarrena. Udal Musika Eskolaren zerbitzu publikoa aurretik onartua dago. Hala ere, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren irekiera eta funtzionamendurako baimena izapidetzen ari da, eta une honetan ez da jasotzen baimen hori emanda dagoenik. Horregatik, ordenantza fiskalaren aldaketa izapidetzea posible bada ere, tasa, matrikula eta kuoten aplikazio eraginkorra zerbitzua legez abian jarri ahal izateari lotuta geratuko da.

Zazpigarrena. Kontu-hartzailetzak txostena eman du, ikuspegi ekonomiko-finantzariotik, tributariotik eta barne-kontrolako ikuspegitik. Txosten horretan aldeko irizpena eman da, bertan jasotako oharrekin.

Zortzigarrena. Idazkaritzak txosten juridikoa eman du, eta bertan ez da eragozpen juridikorik jasotzen espedientea Udalbatzaren Osoko Bilkuraren onespenera eramateko, aurretiaz Kontu-hartzailetzaren txostena eta Informazio Batzordearen irizpena jasota.

Horrenbestez, udal honetako Idazkariak egindako aldeko txosten juridikoa ikusirik eta Antolaketa eta Kontu Bereziak batzordeak 2026ko maiatzaren 21ean emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzari honako akordioa har dezan proposatzen zaio:

AKORDIOA

Lehenengoa.- Hasierako onspena ematea Oiartzungo Udalaren 2026rako Zerga Ordenantzaren lehen aldaketari, 2026ER010002 espedientean jasotako baldintzetan.

Bigarrena.- Onartzea ordenantza fiskalen 9. atalean 9.7 bis epigrafea txertatzea, industria-poligonoetako hondakinen bilketa eta tratamenduagatiko tasa arautzeko, akordio honen I. eranskinean jasotako testu osoaren arabera.

Hirugarrena.- Onartzea ordenantza fiskalen 9. atalean 9.15 epigrafea txertatzea, Udal Musika Eskolaren zerbitzua emateagatiko tasa arautzeko, matrikula, hileko kuotak, hobariak eta kudeaketa-arauak barne, akordio honen II. eranskinean jasotako testu osoaren arabera.

Laugarrena.- Ezartzea 9.7 bis epigrafean jasotako industria-poligonoetako hondakinen bilketa eta tratamenduagatiko tasak 2026ko urriaren 1etik aurrera izango dituela ondorioak, betiere ordenantza fiskalaren aldaketa behin betiko onartu eta testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren.

Bosgarrena.- Ezartzea 9.15 epigrafean jasotako Udal Musika Eskolaren tasa 2026-2027 ikasturtetik aurrera aplikatuko dela, ordenantza fiskalaren aldaketa behin betiko onartu eta argitaratu ondoren, eta betiere zerbitzua legez abian jarri ahal izateko baldintzak betetzen badira.

Seigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea gutxienez 30 eguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udal iragarki-taulan, udal egoitza elektronikoan eta probintziako egunkari zabalduenetako batean iragarkia argitaratuz, interesdunek espedientea aztertu eta erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Zazpigarrena.- Jendaurreko informazioaren epean erreklamaziorik aurkezten ez bada, hasierako akordioa behin betiko onartutzat joko da, beste akordio espresorik hartu beharrik gabe, eta ordenantza fiskalaren aldaketaren testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Zortzigarrena.- Erreklamazioak aurkezten badira, Udalbatzak horiek ebatzi beharko ditu, eta, hala badagokio, ordenantza fiskalaren aldaketa behin betiko onartu.

Bederatzigarrena.- Ordenantza fiskalaren aldaketaren behin betiko testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, indarrean sartzeko beharrezko baldintza gisa.

Alkateak azalpenak amaitu ondoren, udal honetako Idazkariak egindako aldeko txosten juridikoa ikusirik eta Antolaketa eta Kontu Bereziak batzordeak 2026ko maiatzaren 21ean emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, gehiengoz, onartu du 2026rako zerga ordenantzaren lehen aldaketa.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	11	EH Bildu
Aurka		
Abstentzioa	4	EAJ/PNV

-XI-

ARRAGUAKO ARR-1A ETA ARR-1B EREMUE TAN BABES AKUSTIKO BEREZIKO EREMUA (BABE 1) IZENDATZEA ETA EREMUKO PLAN ZONALA ONARTZEA

AURREKARIAK

Oiartzungo udalak, 2025eko urriaren 28ko udalbatzaren bilkuran, Arraguako ARR-1A eta ARR-1B eremu urbanistikoen multzoa Babes Akustiko Bereziko Eremua izendatzea erabaki zuen. Ebazpena jendaurrean jarri zelarik, ez da alegaziorik jaso.

Horrenbestez, udal idazkariak egindako txostenarekin adostasunean erabaki behin betikotzat behar da ondoko terminoetan:

Arraguako ARR-1A eta ARR-1 B eremuetako Plan Berezia eta Plan Partziala idatzi dira eta tramitazioan daude eta Babes akustiko Bereziko Eremua (BABE-1) izendatzeko proposamena egin da. Hirigintza teknikariak zarata eta hots-kutsadurari buruzko legeria aztertu du eta honakoa ondorioztatu du: Oiartzungo Udalak 2016an onartutako zarata-mapan oinarrituta, esan daiteke Arraguako ARR-1A eta ARR-1B eremuetan ezin direla bete kalitate akustikoko helburuak, azpiegitura handien presentziak (AP8, GI-636, GI-2134 bide-sarea, eta RENFERen eta EUSKOTRENen trenbide-sarea) Arragua auzoa inguratzen baitute.

Horregatik, nahiz eta EAEko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 36. eta 43. artikuluen arabera, ezin izango dira etorkizuneko hirigintza-garapenak egin kanpoko kalitate akustikoko helburuak betetzen ez diren eremuetan, aipatutako ARR-1A eta ARR-1B eremuek dekretua indarrean sartzean antolamendu xehatua onartua zutenez, Babes Akustiko Bereziko Eremu izendatzeko aukera ematen duten kasuetako bat betetzen zen, 213/2012 Dekretuaren 43 artikuluen arabera. Hala ezartzen du ere, Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legearen 25. artikulua, kutsadura akustikoa zuzentzeko tresnen artean, OCAk betetzen ez diren eremu akustikoetarako BEPE izendapena jasotzen duenean.

Deklarazio horrekin batera eremu akustikoa, zarata-fokuak eta horien ekarpen akustikoa identifikatuko ditu, eta Zonako Plan bat idatzi da, aipatutako 46 artikuluan aurreikusitako baldintzetan. Eremuetako sustatzaileak ARR-1A arearen eta ARR-1B sektorearen Plan Berezia eta Plan Partziala aurkeztearekin batera 2024ko martxoan EKOLUR enpresak idatzitako Eragin akustikoari buruzko Azterlana aurkeztu zuen eta bertan eremua Babes Akustiko Bereziko Eremua izendatzeko oinarria ezartzen zen, 2012an antolamendu xehetua behin betirako onartua zutelako. Udalak enkargaturik, 2025eko ekainean EKOLUR enpresak idatzitako dokumentua aurkeztu da babes akustiko bereziko eremua izendatzeko proposamena eginez, Eremuko Planarekin batera.

Dokumentuak eremuaren identifikazioa, igorgailu akustikoen identifikazioa, zaraten azterketa, egungo egoera eta etorkizuneko xehetuz, eta Eremuko Plana barneratzen ditu. Azken honek 213/2012 Dekretuaren 46. artikulua jasotako edukia du, hau da, udalak 2016an egindako zarata-mapatik eta Aldundiko Errepide Sailak 2019an eta 2024ean egindakoetatik abiatzen da, neurri zuzentzaileak ezartzen ditu eta hauen arduraduna zehazten, bideragarritasun ekonomikoa eta lortuko lituzketen onurekin alderaketa, eta egutegia.

Eremuko Planak ondorioen atalean jasotzen du:

- 1.- ARR-1A eta ARR-1B eremu urbanistikoen multzoa Babes Akustiko Bereziko Eremua izendatu behar dela.
- 2.- Administrazioek hartu behareko neurri zuzentzaileen artean: GI-2132 errepidean abiadura 30km/ordukora jaistea, pantailak jartzea eta zoladuraren aldaketa “fonoabsorbentea” jarriaz. Gainerako azpiegiturretan ez dira pantailak jarriko teknikoki eta ekonomikoki neurritz kanpoko jotzen delako, 213/2012 Dekretuaren 40.2 artikuluen arabera.
- 3.- Sustatzaileak eraikinen fatxadetan isolamendu akustikoa ezarriko du etxe barneko helburu akustikoak bete daitezen. Gai honen inguruan kontrolerako frogak egingo dira 2016ko ekainaren 15eko aginduak ezarri bezala.
- 4.- Isolamendu akustikoaren frogetarako 30.000 €ko aurrekontua zehazten da eta fatxadetako isolamendua hobekuntzaren zenbatekoa eraikitze proiektuan zehaztuko da. Neurri hauek sustatzailearen ardura izango dira.

Horrenbestez, udal honetako Idazkariak egindako txosten juridikoa ikusirik eta Lurralde batzordeak 2026ko maiatzaren 20ean emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzari honako akordioa har dezan proposatzen zaio:

AKORDIOA

Lehenengoa.- ARR-1A eta ARR-1B eremu urbanistikoen multzoa Babes Akustiko Bereziko Eremua izendatzea behin betirako izaerarekin.

Bigarrena.- Horrekin batera eremu horren Eremuko Plana (plan zonal) onartzea.

Hirugarrena.- Akordio hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta sustatzaileari jakinaraztea.

Alkateak ebazpen proposamen azaldu ondoren, udal honetako Idazkariak egindako txosten juridikoa ikusirik eta Lurralde batzordeak 2026ko maiatzaren 20ean emandako diktamenarekin adostasunean, Udaltzarak, gehiengo absolutuz, onartu du Arraguako ARR-1A eta ARR-1B eremuetan babes akustiko bereziko eremua (BABE-1) izendatzea eta eremuko plan zonala onartzea.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	15	11 EH Bildu, 4 EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

-XII-

UDAL ARAUBIDEKO ETXEBIZITZA TASATUEN ESKATZAILEEN ERREGISTROAREN ERREGELAMENDUAREN ALDAKETARI JARRITAKO ALEGAZIOAREN ERANTZUNA ETA BEHIN BETIRAKO ONARPENA.

AURREKARIAK

Udal honen 2026ko otsailaren 25eko osoko bilkurak Oiartzungo “udal araubideko etxebizitza tasatuen eskatzaileen erregistroa arautzen duen Erregelamenduaren” aldaketari hasierako onarpena eman zion.

Udal Ordenantzaren aldaketa jendaurrean jarri zen eta emandako epean alegazio bat aurkeztu da “Elkartu Federación de personas con discapacidad física de Gipuzkoa” delakoak egindakoa, 2026/05/04ko 2026-3411 zk.ko sarreraren bitartez.

Alegazioa bi kontsideraziotan oinarritzen da. Lehenengoa 3.1.c), artikuluari edukia eranstea datza: Artikulu horrek eskaera bat Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan alta emateko eska daitezkeen betekizunei buruzkoa da. Xedapen horrek beste etxebizitzarik ez izatea eskatzen du, autonomia-erkidegoko araudian jasotako kasuetan edo etxebizitza indarrean dagoen araudian ezarritako gutxiengo bizigarritasun-baldintzetara iristen ez denean izan ezik. Alegazio-egileek bizigarritasun-baldintzei irisgarritasun-baldintzak gehitzea proposatu dute, beste etxebizitzarik ez izateko betekizunetik salbuesten duen faktore gisa.

Bigarrenik, Erregistroak irisgarritasun unibertsala bermatzeko betebeharra jasotzen duen artikulua bat sartzeari proposatzen dute.

Udal idazkariak egindako txostenaren arabera honako erantzuna emateko proposamena egin da:

1.- Lehenengo alegazioari dagokionez, gaia 2012ko urriaren 15eko Aginduak arautzen du eta 9.1.d) artikuluan xedatzen du modu honetan: etxebizitza beharraren eta beste etxebizitzarik ez izatearen baldintza salbuetsiko dela irisgarritasun baldintzak betetzen ez direnean baina titularra 70 urte baino gehiago baldin baditu.

Gauzak horrela, udalak ordenantzaren araubide hori malgutu dezake adinaren baldintza ezabatuz desgaitasuna duten pertsonentzako. Eta horrela etxebizitza beharraren eta beste etxebizitzarik ez izatearen baldintza salbuetsiko litzateke eskatzaileak aurretik duen etxea irisgarritasun baldintzak betetzen ez baditu, titularrak edozein adin duela ere desgaitasuna duen pertsona bada.

Eskaera zentzuduna jotzen da beti ere eskatzaile horrek ezgaitasun egoeran baldin badago.

2.- Bigarren eskaerari dagokionez, Oiartzungo udalak onarturiko Administrazio elektronikoaren Ordenantzak (2026/02/10ko GAO), irisgarritasun orokorraren printzipioa uztartzen du jarraian ikusiko den bezala:

“4. artikulua. Printzipio orokorrak.

b. Irisgarritasun-printzipioa, hau da, zerbitzu elektronikoak diseinatzean, eraikitzean, mantentzean eta eguneratzean errespetatu beharreko printzipioen eta tekniken multzoa, erabiltzaileen, bereziki, emakumeen, **desgaitasuna duten pertsonen** eta adinekoen sarbidean berdintasuna eta diskriminaziorik eza bermatzeko.

13. artikulua. Egoitza elektronikoa

4. Egoitza elektronikoa publizitate-, erantzukizun-, kalitate-,segurtasun-, eskuragarritasun-, **irisgarritasun-**, neutraltasun- eta elkarreragingarritasun-printzipioen arabera ezarriko da. Nolanahi ere, egoitzaren titularraren identifikazioa bermatuko da, bai eta iradokizunak eta kexak egiteko bitartekoen eskuragarritasuna ere.

5. Telefonía mugikorrek sareen bidez sartzeko, egoitzaren helbide elektronikoa bera erabiliko da.

6. Oiartzungo Udalaren titulartasuneko egoitza elektronikoa informazioak, zerbitzuak eta transakzioak argitaratzean, **irisgarritasun-**eta erabilgarritasun-printzipioak errespetatuko dira, horri buruz ezarritako arauen, estandar irekien eta, hala badagokio, herritarrek oro har erabil tzen dituztenen arabera.

15. artikulua. Egoitza elektronikoaren zerbitzuak.

1. Egoitza elektronikoa honako zerbitzu hauek izango ditu, gutxienez, interesdunen eskura:

a) Egoitza elektronikoa edo hari lotutako egoitza elektronikoa eskuragarri dauden zerbitzu eta izapideetarako sarbide bat, prozeduren gehieneko iraupen-epeak adierazita, organo eskudunak, hala badagokio, erabaki ditzakeen luzapen edo eteteak alde batera utzi ta.

b) Esteka bat, kasu bakoitzean eskumena duten organoen aurrean iradokizunak eta kexak aurkezteko.

c) Oiartzungo udal-administrazioaren webguneen eta aplikazio mugikorren irisgarritasun-baldintzei buruz ezarritako komunikazio-mekanismoak eta erreklamazio-prozedura.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengo xedapen gehigarria. Oiartzungo Udaleko langileen prestakuntza eta laguntza.

Oiartzungo Udalak bere zerbitzura dauden langileen prestakuntza sustatuko du, administrazio publikoarekiko harremanetan bitarteko elektronikoak erabiltze ko interesdunek duten eskubidea bermatze ko, urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoaren arabera.

Bigarren xedapen gehigarria. Ordenantzaren sustapena.

1. Oiartzungo Udalak ordenantza honetan jasotako neurrien zabalkundea sustatuko du, herritarrek eta bere enplegatu publikoek horren berri izan dezaten.

2. Oiartzungo Udalak hartzaileei egokitutako informazio-, sentsibilizazio- eta prestakuntza-kanpainak egingo ditu hedapenari, formatuari eta edukiari dagokienez, eta lehentasuna emango die emakumeei, desgaitasuna duten pertsonen eta adinekoei.

3. Oiartzungo Udalak beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartuko ditu berdintasuna eta diskriminaziorik eza bermatzeko erabiltzaileek udal-administrazioarekin harreman elektronikoa izateko eskubidea gauzatzeko behar diren baliabide elektronikoak baliatzean; bereziki, emakumeei, desgaitasuna duten pertsonen eta adinekoei zuzendutakoak.

Ondorioz, aipatu Administrazio elektronikoaren Ordenantzak nahikoa bermatzen du irisgarritasun unibertsalaren printzipioa eta udala ari da aipatu printzipioa praktikan jartzeko baliabideak lantzen.

Horrenbestez, udal honetako Idazkariak egindako txostena ikusirik eta Lurralde batzordeak 2026ko maiatzaren 20ean emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzari honako akordioa har dezan proposatzen zaio:

AKORDIOA

Lehenengoa.- Alegazioa partzialki onartu eta 3.1.c) atala horrela idatziko da:

3.1.c) Todas las personas beneficiarias de VTM, entendiendo por tales la totalidad de las personas miembros de la unidad convivencial, deberán cumplir el requisito de no disponer de otra vivienda, bien en propiedad, plena o superficiaria, bien por derecho real de disfrute vitalicio, y ello en los términos y con las salvedades establecidas en la normativa autonómica que define la necesidad de vivienda o salvo cuando la vivienda de la que dispongan no alcance las condiciones mínimas de habitabilidad establecidos en la normativa vigente, o las condiciones de accesibilidad, establecidas en la normativa vigente, respecto de personas con discapacidad, con arreglo a la normativa vigente, sin límite de edad, o respecto de cualquier persona mayor de 70 años.

3.1..c) Udal etxebizitza tasatuen onuradun guztiek (elkarbizitza unitateko kide guztiak sartzen dira onuradunen multzoan) bete behar duten baldintza da etxebizitzarik ez edukitzea era hauetakoren batean: Jabetzan -erabatekoan edo ez azalera-eskubideko jabetzan-, edota biziarteko gozameneko eskubide erreal bezala, etxe premia definitzen duen arautegi autonomikoaren terminoetan eta salbuespenekin; edo, etxebizitza edukita ere, horrek ez betetzea indarrean dauden arauk xedatutako bizigarritasun baldintza minimoak, edo indarrean dauden arauk xedaturiko irisgarritasun baldintza minimoak beti ere desgaitasun duen pertsonarekiko, indarrean dauden arauk definitzen duten bezala, adin mugarik gabe, edo edozein pertsonarekiko 70 urte gorakoa baldin bada.

Bigarrena.- Oñartzungo udal araubideko etxebizitza tasatuen eskatzaileen Erregistroaren Erregelamenduaren aldaketari, alegazioa onartzearen ondorioz onarturiko idazketarekin, behin betiko onarpena ematea.

Hirugarrena.- Ordenantza GAOn eta web orrian osorik argitaratuko da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoa betetzeko, eta 65.2 artikuluan aurreikusitako epea igaro ondoren jarriko da indarrean aldaketa hori.

Alkateak ebazpen proposamena azaldu ondoren, udal honetako Idazkariak egindako txostena ikusirik eta Lurralde batzordeak 2026ko maiatzaren 20ean emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, gehiengo absolutuz, onartu du udal araubideko etxebizitza tasatuen eskatzaileen erregistroaren erregelamenduaren aldaketari jarritako alegazioaren erantzuna eta behin betirako onarpena.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	15	11 EH Bildu, 4 EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

-XIII-

ALT-6 EREMUKO MUGAN, ARBAISENEA S.L.REN JABETZAKO 18.538 FINKAREN 432,21 M²KO SAILAREN GAINEAN ZORBIDEA ERATZEA, AGERRE BASERRIKOAK IZANDAKO UDAL LURRETAN BURUTU BEHARREKO NEKAZAL USTIAPENERA SARBIDEA EGITEKO

Oñartzungo Hiri Antolaketako Plan Orokorrak Altzibarko ALT-6 eremua hiri-lurzoru bezala sailkatzen du bertan etxebizitza sustapena aurrera eramateko. Udalak obra baimena eman zuen eta lanak burutzen

eta amaitzeko dauden honetan, udal arkitektoak egindako txostenaren arabera, honako egoera ematen da:

- ALT-6 eremuaren barnean Jabetza Erregistroko 18.538 zk.ko finkaren zati bat sartu zen, zehazki 6.248 m². Ondoren, jatorrizko finka honako deskripzioarekin gelditu zen:

“URBANA.- parcela de terreno segregado de los pertenecidos del caserío Aguirre o Aguerre, que delimita en su parte sur y oeste, de forma curvada con terrenos de la AIU ALT-3, sito en jurisdicción de Oiartzun, en el barrio de Altzibar. Tiene una superficie de TRES MIL SEISCIENTOS CUARENTA Y UN METROS CUADRADOS Y SETENTA DECÍMETROS. Limda: al Norte, con parcela aportada a la reparcelación del A.I.U. ALT-6 “Altzibar Mendebaldea”, edificaciones sitas en Agerrealde Etxadia y campo de baloncesto; al Sur, con finca de la que se segrega y en parte con pertenecidos de la casa Aingeru Berri; por Oeste, con finca de la que se segrega; y Este, edificaciones sitas en Zelai Etxadia, frontón y terrenos sitios entre el frontón y carretera de Artikutza”.

Katastroko 07-326 lursaila da.

- Bestalde, Udalak eta AZPEITIA ISASA S.L.ek egindako lur-trukaketaren ondorioz udala Katastroko 07-051 lursailaren jabe da, Agerre baserriaren inguruko lurrekin osatzen dena, eta Jabetza Erregistroko 19.923 zk.ko finka dena.
- Udal arkitektoaren txostenaren arabera, ALT-6 eremuaren sustapenaren garapenaren ondorioz egindako lur-moldaketek ondorengo egoera sortu dute:
 - 07-326 lursail pribatuaren barnean 441,51 m²-ko azalera hartzen duen ezpona bat antolatu da, zeinak mantenu publikoa izango duen.
 - Bestalde, 07-051 udal jabetzako lursailean sartzeko sarbidea antolatzeko aukera bakarra ezpona horren jarraian kokatzen da, eta horretarako beharrezkoa da 07-326 lursail pribatuan 432,21 m²-ko azalera hartzea.
 - Arazoa konpontzeko, sarbide hori bermatzeko, interes publikoan oinarrituta, lur jabearekin bide zortasun bat eratzea adostu da, horretarako hitzarmena izenpetuz.

Udal idazkariak egindako txostenaren arabera, hitzarmenaren xedea beraz, Katastroko 07-326 lursail pribatuaren gainean erabilera publikoko bide zortasuna sortzea, Oiartzungo udalaren jabetzako katastroko 07-051 lursailaren, 19.923 finkaren, alde.

Zorbidea honako lur zatiaren gainean eratuko da:

- Jabetza Erregistroko 18.538 zk.ko finkaren gainean.
- Azalera: 432,21 m², 3 metro zabalera eta 144,07 metro luzerako bidea izango da.
- Mugak: Iparraldetik eta hegoaldetik, jatorrizko finka; ekialdetik, edificaciones sitas en Zelaia etxadia; eta mendebaldetik, Agerre baserriko lurak.

Jatorrizko finkaren deskripzioa: 3.209,49 m²ko azalerarekin eta mugak: jatorrizkoak izango dira baina ekialdetik mendebaldera 3 metro zabal eta 144,07 metro luze duen erabilera publikoko bidea eraikitzeko lur-zerrendak zeharkatuta.

Aipatu 432,21 m² azaleraren lur-zatiketa baimena eman beharko da.

Zorbidea udalaren jabetzako katastroko 07-051 lursailaren, 19.923 finkaren, alde eratuko da.

Eta legeri aplikagarriaren inguruan, udalak bere jabetzako 07-051 lursailera sarbidea izateko bidea egiteko oinarri egokiena erabili beharreko lurak erostea litzateke. Hala ere, lur pribatuaren jabeak ez du saltzeko borondaterik. Ondorioz 2 aukera daude, desjabetzapena aplikatzea edo zorbidearen bidez

irtenbidea ematea. Desjabetzapena aplikatu ahal izateko bide hori herriko bide publikoen sarean jasota beharko luke. Gauzak horrela, irtenbide bakarra, lur jabe pribatua zorbidea emateko prest dagoenez, bide zortasun hori eratzea izango da.

Bide-zortasuna lortzeko kontratua idatzi da eta egoki jotzen da erabilera publikoko bidea eraiki ahal izateko.

Ondorioz, Kode Zibilaren 594. artikulua xedatzen duen borondatezko zortasuna eratuko da, beti ere luraren jabetza duten kide guztien adostasunarekin. Bestalde, bide-zortasuna Kode Zibilaren 564 eta hurrengo artikuluen arabera arautuko da.

Kode Zibilaren 594 artikulua horrela dio:

Artículo 594

Todo propietario de una finca puede establecer en ella las servidumbres que tenga por conveniente, y en el modo y forma que bien le pareciere, siempre que no contravenga a las leyes ni al orden público.

Zorbidea iraunkorra eta mugagabea eratuko da, udal-jabetzako finkara sartzeko beharrak irauten duen bitartean eta, lur jabe pribatuarekin horrela adostu delako, doakoa izango da. Udalak bere gain hartuko du bidearen eraikuntza, konponketak eta mantenu arrunta.

Horrenbestez, udal honetako zerbitzu teknikoek egindako txosten tekniko eta juridikoa ikusirik eta Lurralde batzordeak 2026ko maiatzaren 20ean emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzari honako akordioa har dezan proposatzen zaio:

AKORDIOA

Lehenengoa.- Katastroko 07-326 lursail pribatuaren gainean, 18.538 zk.ko finka, erabilera publikoko bide zortasuna sortzea, Oiartzungo udalaren jabetzako katastroko 07-051 lursailaren, 19.923 finkaren, alde honako xehetasunarekin: 432,21 m², 3 metro zabalera eta 144,07 metro luzerako bidea izango da.

Bigarrena.- Helburu horrekin, honako lur zatiketari baimena ematea:

- Jabetza Erregistroko 18.538 zk.ko finkaren gainean.
- Azalera: 432,21 m², 3 metro zabalera eta 144,07 metro luzerako lur zerrenda.
- Mugak: Iparraldetik eta hegoaldetik, jatorrizko finka; ekialdetik, edificaciones sitas en Zelaia etxadia; eta mendebaldetik, Agerre baserriko lurak.

Jatorrizko finkaren deskripzioa: 3.209,49 m²ko azalerarekin eta mugak: jatorrizkoak izango dira baina ekialdetik mendebaldera 3 metro zabal eta 144,07 metro luze duen erabilera publikoko bidea eraikitzeke lur-zerrendak zeharkatuta.

Hirugarrena.- Bide zortasuna Jabetza Erregistroan eta udal ondasunen inbentarioan inskribatuko da. Gastuak udalaren kontura izango dira.

Laugarrena.- Zorbidea iraunkorra eta mugagabea eratuko da, udal-jabetzako finkara sartzeko beharrak irauten duen bitartean eta, lur jabe pribatuarekin horrela adostu delako, doakoa izango da. Udalak bere gain hartuko du bidearen eraikuntza, konponketak eta mantenu arrunta, baita 441,51 m² ezpondaren mantenu lanak ere.

Bosgarrena.- Jatorrizko lursaila den 18.538 zk.ko finkaren jabetza eskualdatuko balitz, erosle berriari zortasunaren terminoak jakinaraziko dizkio saltzaileak eta jabe berriak betebeharrak eta eskubide guztietan subrogatuko da.

Alkateak ebazpen proposamena azaldu ondoren, udal honetako zerbitzu teknikoek egindako txosten tekniko eta juridikoa ikusirik eta Lurralde batzordeak 2026ko maiatzaren 20ean emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, gehiengo absolutuz, onartu du ALT-6 eremuko muga, Arbaisenea S.L.ren jabetzako 18.538 finkaren 432,21 m²ko sailaren gainean zorbidea eratzea, Agerre baserrikoak izandako udal lurretan burutu beharreko nekazal ustiapenera sarbidea egiteko.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	15	11 EH Bildu, 4 EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

-XIV-

ONURA PUBLIKOA DUEN 2.063.1 PIKOKARATE MENDIKO UNADA BAT ARRAZTALO ELKARTEARI EMAKIDA

AURREKARIAK

Udal honek, dagokion tramitazioa burutu ondoren, 2023ko martxoaren 29an ospaturiko Osoko Batzarrean, udal jabegoko eta Onura Publikoko 2.063.1 Pikokarate mendiko 0.23 Ha.ko landa katastroko 3. poligonoko 7. lursailaren emakida Arraztalo Elkartearen alde onartzea erabaki zuen, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Mendiak eta Habitatak Kudeatzeko Zerbitzuak adierazitako baldintzapean.

Horien artean, 10 urterako epea jasotzen zen eta behin emakida bukatzen denean, Arraztalo elkarteak egin behar duen erabilpena egoera onean bueltatuko du lursaila eta jasotzen duen egoeran.

2026ko martxoaren 10ean Jon del Olmo Larrañaga jaunak, Arraztalo elkartearen izenean, idatzia aurkeztu du emakida bertan behera utzi nahi duela esanez, lursailaren eta sagastiaren sarbide desgokiak mantenu lanak gehiegi zailtzen dituela argudiatuz.

Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 91. artikulutik aurrera arautzen du jabari publikoaren gaineko baimenak eta emakidak eta 100.ean iraungipena. Arrazoien artean, e) atalean adostasuna jasotzen da. Arraztalok aurkezturiko emakida bertan behera uzteko eskaeraren aurrean mendi eta ingurumen teknikariak, bere txostenean, aldeko irizpena eman du eta, ondorioz, adostasuna dagoela ulertu behar da.

Gainera udal teknikariak ikuskapena egin du eta egoera onean dagoela adierazi du. Horrenbestez, Onura Publikoko 2.063.1 Pikokarate mendiko 0.23 Ha.ko landa katastroko 3. poligonoko 7. lursailaren emakida bertan behera uzteko eskaera onartzea eta ondasunaren erabilera udalaren inbentarioan berreskuratua izan dela adieraziko da.

Eskumenari dagokionez, emakidaren aldeko ebazpena udalbatzak egin zuenez, berari dagokio eskubidea bertan behera uzteko erabakia.

Horrenbestez, udal honetako sail teknikoak egindako txosten tekniko eta juridikoak ikusirik eta Lurralde batzordeak 2026ko maiatzaren 20ean emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzari honako akordioa har dezan proposatzen zaio:

AKORDIOA

Lehenengoa.- Arraztalo elkarteak horrela eskatuta eta udalaren adostasunarekin, Arraztalo elkarteari utzitako eta Onura Publikoa duen 2.063.1 Pikokarate mendiko landa katastroko 3. poligonoko 7. lursailaren emakida bertan behera uztea, udalaren inbentarioan ondasunaren erabilera berreskuratua izan dela adierazita.

Bigarrena.- Erabaki hau interesatuari eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendiak eta Habitatak Kudeatzeko Zerbitzuari jakinaraztea.

Alkateak ebazpen proposamena azaldu ondoren, udal honetako sail teknikoak egindako txosten tekniko eta juridikoak ikusirik eta Lurralde batzordeak 2026ko maiatzaren 20ean emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, gehiengo absolutuz, onartu du, Arraztalo elkarteak horrela eskatuta eta udalaren adostasunarekin, Arraztalo elkarteari utzitako eta Onura Publikoa duen 2.063.1 Pikokarate mendiko landa katastroko 3. poligonoko 7. lursailaren emakida bertan behera uztea, udalaren inbentarioan ondasunaren erabilera berreskuratua izan dela adierazita.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	15	11 EH Bildu, 4 EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

-XV-

HARTUTAKO ERABAKIEN (ALKATETZAREN EBAZPENAK, GOBERNU BATZORDEKO AKORDIOAK) ETA PROTOKOLO GASTUEN BERRI EMATEA.

Idazkariak honakoen berri eman die Udalbatza kideei:

1. Hartutako erabakiak:

Alkatearen ebazpenak:
2026eko apirilaren 27tik maiatzaren 22ra arte.
Zk. 2026/788tik 2026/1045ra.

Tokiko Gobernu Batzarra:
Bilkura honen deialdia egin zen eguna arte Tokiko Gobernu Batzarra bitan bildu da, 2026eko maiatzaren 12an eta 26ean, hain zuzen ere.

2. Protokolo eta ordezkapen gastuak eta dietak:

2026ko apirilean ez dago gasturik.

Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra, 19:00ak direnean. Idazkariak batzarrari dagokion agiri hau idatzi eta alkateak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorriz Toki Erakundeen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, idazkaria naizen honek, ematen dut.

Alkatea



OIARTZUNGO
UDALA

Sin.: Joana Mendiboure

Idazkaria



OIARTZUNGO
UDALA

Sin.: Maria Victoria Joaristi Olariaga

 	INPRIMAKIA: IM-S02/2 Lankidetza Hitzarmena	Berrazt.: 3 Data: 2015/02/04 Or.: 56tik 33.a
---	---	--

**OIARTZUNGO UDALAREN ETA OARSOALDEA S.A.REN ARTEKO
LANKIDETZA-HITZARMENA**

Oiartzunen, 2026korenan.

BILDUTA

ALDE BATETIK, JOANA MENDIBOURE andrea, **OIARTZUNGO UDALEKO** alkate-udalburua, Done Eztebe plazan, 1 Oiartzunen helbidea duena eta P2006800C IFZrekin. Udalbatzaren alkate-udalburua den neurrian dihardu eta erakundearen legeko ordezkartza-ahalmenak bereak egiten ditu, indarreko araudiaren xedapenei erreparatuz eta hartutako erabakiaren babesean.

BESTETIK, FERNANDO NEBREDÁ DÍAZ DE ESPADA jauna, adin nagusikoa, 13.296.752-S zenbakia duen nortasun agiri nazionalarekin. OARSOALDEA, S.A. merkataritza-konpainiaren (aurrerantzean, **OARSOALDEA**) izenean eta horri ordezkatzuz jarduten du. Aipatu konpainiak xede hauetarako helbidea OIARTZUNEN (20180), Astigarraga bideko 2. zenbakiaren 2. solairuan, Mamuteko bulegoen eraikinean du eta Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan inskribatuta dago; azkenik, A-20458329 IFZ du. Konpainiaren kudeatzailea den heinean dihardu eta, aldi berean, 1993ko irailaren 15eko Administrazio Kontseiluaren erabakiaren babesean, hitzarmen hau sinatzeko ahalmena duela azaltzen du.

Agertzen diren pertsonen beren ahalmenak ez direla baliogabetu, mugatu edo eten eta ordezkatzun dituzten erakundearen gaitasun-egoerak ez direla aldatu azaltzen dute.

Agertzen diren aldeek, bakoitzak duen ordezkartzan oinarrituta, sinatzeko gaitasuna onartzen diote elkarri eta ondorengo

AZALTZEN DUTE:

I.- Krisi ekonomikoak OARSOALDEko eskualdea bereziki kolpatu du, beste eskualde batzuekin alderatuz, langabetuen tasarik altuenetarikoa baitu. Horregatik, OARSOALDEA Eskualdearen Garapen Agentzia osatzen duten lau Udalak lehenengoak eskualdearen garapen sozioekonomikorako programak gara ditzen interesatuak daude.

II.- Aurreko helburuarekin zerikusia duten programak egin eta abian jartzeko orduan, agertzen diren erakundeek urte asko daramatzate lanean eta 2026 ekitaldiko programak garatzeko berriz ere lankidetzan jarraitu dute.

III.- Era berean, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legeak, azaroaren 8ko 9/2017 legearen bitartez onartutakoak, 6. artikuluan xedatutakoaren arabera, bere eremutik zuzenbide pribatua bete behar duten pertsona fisiko edo juridikoekin administrazioak

 	INPRIMAKIA: IM-S02/2 Lankidetza Hitzarmena	Berrazt.: 3 Data: 2015/02/04 Or.: 56tik 34.a
---	---	--

burututako hitzarmenak baztertzin ditu, betiere xedea lege horiek edo administrazio-arau bereziek arautzen dituzten ohiko kontratuen helburuen barruan ez badago.

IV.- Agertzen diren pertsona juridikoak **LANKIDETZA-HITZARMENA** sinatzeko erabat ados daudenez, hala egingo dute honako klausulekin bat:

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- HITZARMENAREN XEDEA

Hitzarmen honen xedea OIARTZUNGO UDALAREN ETA OARSOALDEAREN artean lankidetza-erregimena zehaztea da, bi erakundeetarako interes erkidea duten honako arloetan hainbat programa garatzeko:

- a. EKONOMIA ETA LURRALDE GARAPENERAKO ESTRATEGIA:
 - Industria gara eta berri dadin sustatzea eta horri lotutako zerbitzuak
- b. PERTSONEI ARRETA
 - Pertsonen emandako arreta, aukera-sektorea
 - Gizarte-egoera ahulenerako kolektiboen gizarteratzea eta lan-munduratzeari sustatzea
- c. OARSOALDEA HELMUGA
 - Sektore turistikoa, eskualdearen erakargarritasuna duela eta potentziala duen jarduerak. Merkataritza, aliatua
- d. EUSKARA SUSTAPENA
- e. HIRI-BERRIZTAPENA ETA MUGIKORTASUNA
- f. KONTSUMO ZERBITZUA

BIGARRENA.- IRAUPENA

Hasieran, lankidetza-hitzarmena 2026 aurrekontu-ekitaldian aplikatuko da eta honen babesean garatzen diren programak amaitu eta justifikatu arte egongo da indarrean.

 	INPRIMAKIA: IM-S02/2 Lankidetza Hitzarmena	Berrazt.: 3 Data: 2015/02/04 Or.: 56tik 35.a
---	---	--

HIRUGARRENA.- UDALAREN BETEBEHARRAK

1.- 2026 ekitaldirako aurrekontu-kredituan oinarrituta, OIARTZUNGO UDALAK OARSOALDEAK proposatutako jarduera-programak finantzatu beharko ditu, hitzarmen honen **ERANSKINEAN** agertzen diren baldintzetan. Bi aldeek idatziz jasoa uzten dute transferentzia ekonomikoak ez direla ustiapenaren defizita edo funtzionamenduari buruzko gastu orokorrak finantzatzera bideratuko. Ildo horri eutsiz, hitzarmenaren babesean xedatutako proiektu zehatzak burutzeko izango dira.

2.- Lankidetza-hitzarmen honetarako onartzen den aurrekontu-kreditua eta, ondorioz, gara dadin OARSOALDEAK egingo dituen jarduerak finantzatzeko transferentzien muga **416.569,60** eurokoa da.

LAUGARRENA.- OARSOALDEAREN BETEBEHARRAK

1.- OARSOALDEAK hitzarmenaren xedearekin zerikusia duten jarduera-programak diseinatu eta gauzatu beharko ditu.

2.- OARSOALDEAK publiko egingo du UDALAREN finantzazioa hitzarmenaren babesean garatuko den jarduera bakoitzean.

BOSGARRENA.- INFORMAZIOAREN BETEKIZUNA. DATUAK BABESTEA.

1.- Hitzarmena sinatu ondoren izan daitekeen edozein gertaera edo gorabeherari buruz aldeek berri emango diote elkarri, lankidetza-hitzarmen honetako helburuekin zerikusia badute.

2.- Hala badagokio, alde sinatzaileek datu pertsonalak lortu edo hitzarmena aplikatzeko laga behar badituzte, 3/2018 Lege Organikoak, abenduaren 5koak, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalen bermeari buruzkoak, 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Europako Batasuneko (EB) Araudia (2016/679), datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien doako zirkulazioari buruzko pertsona fisikoen babesari buruzkoa, eta garapen-araudiak xedatutakoarekin bat lantzeko konpromisoa hartzen dute.

SEIGARRENA.- JARRAIPEN-BATZORDEA

1.- Lankidetza-hitzarmena behar bezala betetzen dela bermatzeko, alde sinatzaileek Jarraipen Batzordea abian jartzea erabakitzen dute honako kideekin:

- **UDALAK** izendatutako bi pertsona.
- **OARSOALDEAK** izendatutako bi pertsona.

 	INPRIMAKIA: IM-S02/2 Lankidetza Hitzarmena	Berrazt.: 3 Data: 2015/02/04 Or.: 56tik 36.a
---	---	--

2.- Hitzarmen honen beste klausula batzuetan aurrez ikusitakoez gain, Jarraipen Batzordeak ondorengo funtzioak izango ditu:

- Lankidetza-hitzarmenaren edukiarekin zerikusia duten hainbat alderdiri buruzko proposamenak egitea.
- Hitzarmena behar bezala betetzeko jarduerak koordinatzea.
- Batzordekideen informazioa jasotzea.
- Proiektuak abian jartzeko akordioak eta hitzarmenak proposatzea.
- Gauzatzen ari diren programak jarraitzea.
- Agertzen diren aldeak edo hirugarrenek planteatu ostean, edozein ekimen-mota aztertzea.
- Antzeko edozein funtzio.

3.- Jarraipen Batzordea hitzarmena sinatu duen alde batek egokitzen jotzen duen bakoitzean bilduko da.

4.- Jarraipen Batzordeak hitzarmenean jasotzen diren kopuruen egutegia onartuko du. Kontrakorik ez bada adosten, abenduaren 30erako aurrekontuaren %80 ordainduko da (aurrerakina kenduta). Geratzen den azken zatia 2026ko Urteko Kontuak Oarsoaldeako Administrazio Kontseiluak onartzen dituenean ordainduko da. Urteko kontuak Administrazio Kontseiluak onartzeko, Jarraipen Batzordeak aurretik urteko kontuei eta auditoria txostenari adostasuna eman behar dio.

ZAZPIGARRENA.- BERRITZEA.

Lankidetza-hitzarmena sinatu duen alde batek onartutako eskubideak eta betebeharrak ezingo dizkie hirugarren erakundeei laga, errenta, gozamenen eman, transferi, etab., hitzarmena sinatu duen beste aldeak baimendu gabe.

ZORTZIGARRENA.- HITZARMENA EZ BETETZEA.

Hitzarmen honetan onartzen diren eginbeharrak larriki betetzen ez badira, agertzen den edozein erakundek bere kabuz hitzarmena ebatz dezake, baita eragindako kalteak ordaintzea eskatu ere.

BEDERATZIGARRENA.- JAKINARAZPENAK.

1.- Lankidetza-hitzarmen honek aurrez ikusten duenerako, erakundeen helbideak buruan agertzen direnak izango dira, edozein alde kontratugilek modu frogagarrian helbide berria jakinarazten duenean izan ezik.

06. GAIA

  Oarsoaldea geroa eriten creando futuro OIARTZUNGO UDALA	INPRIMAKIA: IM-S02/2 Lankidetza Hitzarmena	Berrazt.: 3 Data: 2015/02/04 Or.: 56tik 37.a
---	---	--

2.- Lankidetza-hitzarmenean aurrez ikusten diren jakinarazpenak modu frogagarrian gauzatuko dira.

HAMARGARRENA.- EZTABAIDAK EBAZTEA.

Hitzarmen hau interpretatzeko, aldatzeko, ondorioak zehazteko... orduan sor daitezkeen gai gatazkatsuak Jarraipen Batzordearen barruan ebatziko dira. Adostasunik ez balego, edozein eztabaidarako aginpideduna administrazioarekiko auzi-jurisdikzioa litzateke.

HAMAIKAGARRENA.- IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA.

Aipatu hitzarmena administratiboa da eta, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legeak 6. artikuluan xedatutakoarekin bat, lege-xedapen horren aplikazio-eremutik kanpo gelditzen da.

HAMABIGARRENA.- INDARRALDIA

Hitzarmen hau 2026eko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean.

Eta adostasunaren lekuko, dokumentu honen bi ale sinatzen dituzte buruan aipatutako datan eta tokian.

Oiartzunen, 2026korenan.

OIARTZUNGO UDALA

OARSOALDEA S.A.

Sin.: Joana Mendiboure

Sin.: Fernando Nebreda Díaz de Espada

 	INPRIMAKIA: IM-S02/2 Lankidetzeta Hitzarmena	Berrazt.: 3 Data: 2015/02/04 Or.: 56tik 38.a
---	---	--

ERANSKINA

EKONOMIA ETA LURRALDE GARAPENERAKO ESTRATEGIA: berrikuntza eta garapen teknologikoko arloetan dauden negozio dinamikak eta jarraipen tresnak sendotzea, baita berrikuntzarekin enpresen elkarrenergina ahalbidetzea ere, ekipamendu espezializatu eta azpiegitura partzialen bidez.

PERTSONEI ARRETA: Eskualdeko biztanleen bizitza kalitatea hobetu, enpleguaren eta gizartean txertatzeko programen bidez, eta biztanlegoaren kontsumo ohiturak jasangarriagoak izaten lagunduz.

OARSOALDEA HELMUGA: Oarsoaldea eskualdea lehentasunezko eta kalitatezko helmuga bihurtzea, gure identitate kulturalaren eta gure turismoaren negozioen lehiakortasunean oinarrituta; turismo jasangarriaren eredu baten bidez, enplegua eta aberastasuna modu orekatuan sortzeko, bai espazio geografikoan, bai denboran.

EUSKARA SUSTAPENA. Eskualdeko eremu ezberdinetan euskararen ezagutza eta erabilera areagotzea du xedea.

HIRI BERRIZTAPENA ETA MUGIKORTASUNA: Ondare urbanizatua eta eraikiaren egokitzapena eta hobekuntza bultzatzeaz arduratzen da, batez ere hiritarren birgaitze pribatuko obrak eragiteko diru-laguntzen bideratze eta kudeaketan, baita ere mugikortasun jasangarria sustatzeaz eskualdeko bidegorri sarea garatuz eta eskualdeari dagozkion udalez gaundiko garraio publikoaren estrategiak koordinatuz.

KONTSUMO ZERBITZUA: Kontsultak eta erreklamazioei arreta ematea du helburu, horretarako informazioa, bitartekotza eta arbitraje edo ikuskaritzara bideratuaz ere.

06. GAIA

 	INPRIMAKIA: IM-S02/2 Lankidetzaz Hitzarmena	Berrazt.: 3 Data: 2015/02/04 Or.: 56tik 39.a
---	---	---

	Errenteriako Udala	Lezoko Udala	Oiarzango Udala	Pasaiaiko Udala
Aurrekontua	1.110.368,95 €	448.038,37 €	555.665,75 €	634.902,07 €
Enkargua	286.251,88 €	88.258,15 €	139.096,15 €	139.096,15 €
Ekonomia eta lurraldearen garapenerako estrategia	11.962,11 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €
Hiri berriztapena eta mugikortasuna	24.002,30 €	12.001,15 €	12.001,15 €	12.001,15 €
Oarsoaldea helmuga	72.354,47 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €
Pertsonen arreta	177.933,00 €	76.257,00 €	127.095,00 €	127.095,00 €
Orokorra	824.117,07 €	359.780,22 €	416.569,60 €	495.805,92 €
Antolaketa eta zeharkako elementuak	509,15 €	509,15 €	509,15 €	509,15 €
Ekonomia eta lurraldearen garapenerako estrategia	265.945,80 €	74.710,99 €	85.790,49 €	79.719,83 €
Euskara	127.378,75 €	42.154,47 €	54.966,69 €	68.385,83 €
Hiri berriztapena eta mugikortasuna	75.051,70 €	52.923,00 €	53.126,85 €	54.349,95 €
Konsumitzailearen arreta	43.419,12 €	17.324,67 €	13.596,89 €	24.780,22 €
Oarsoaldea helmuga	125.826,17 €	59.819,24 €	85.063,50 €	121.530,27 €
Pertsonen arreta	185.986,38 €	112.338,70 €	123.516,02 €	146.530,66 €
Guztira	1.110.368,95 €	448.038,37 €	555.665,75 €	634.902,07 €

 	INPRIMAKIA: IM-S02/2 Lankidetza Hitzarmena	Berrazt.: 3 Data: 2015/02/04 Or.: 56tik 40.a
---	---	--

**CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE
EL AYUNTAMIENTO DE OIARTZUN Y OARSOALDEA S.A.**

En Oiartzun, a de de 2026

REUNIDOS

DE UNA PARTE: Dña. JOANA MENDIBOURE Alcaldesa del **AYUNTAMIENTO DE OIARTZUN** con domicilio en Done Eztebe plazan, 1en Oiartzun con NIF P2006800C. Actúa en su condición de Alcaldesa de la corporación municipal, haciendo suyas las facultades de representación legal de la entidad que le confieren las disposiciones normativas vigentes y al amparo del acuerdo adoptado con fecha de

DE OTRA PARTE: DON FERNANDO NEBREDÁ DÍAZ DE ESPADA, mayor de edad, con Documento Nacional de Identidad número 13.296.752-S Interviene en nombre y representación de la compañía mercantil OARSOALDEA, S.A. (en adelante, **OARSOALDEA**), con domicilio a estos efectos en Astigarragako Bidea 2, Edificio de Oficinas Mamut, Planta 2ª, 20.180 - OIARTZUN, inscrita en el Registro Mercantil de Gipuzkoa y con NIF A-20458329. Interviene en su condición de Gerente de la compañía y, asimismo, manifiesta que se encuentra apoderado para el otorgamiento del presente convenio al amparo del acuerdo del Consejo de Administración de 15 de septiembre de 1993.

Las personas comparecientes manifiestan que sus facultades no les han sido revocadas, limitadas ni suspendidas y que no han variado las circunstancias de capacidad de sus entidades representadas.

Las partes comparecientes, en la representación que ostentan, se reconocen mutua capacidad para obligarse y

EXPONEN

I.- Que OARSOALDEA es una comarca especialmente castigada con la actual crisis económica pues presenta uno de los índices más altos de personas desempleadas respecto a otras comarcas y por dicha razón los cuatro ayuntamientos que integran la agencia de desarrollo comarcal OARSOALDEA tienen interés en que por parte de esta entidad se desarrollen diferentes programas para el desarrollo socioeconómico de la comarca.

II.- Que las entidades comparecientes vienen trabajando desde hace años en la elaboración y puesta en marcha de diversos programas relacionados con el objetivo anterior y desean colaborar nuevamente para el desarrollo de los correspondientes programas en el ejercicio 2026.

III.- Que, asimismo, el artículo 6 de la Ley de Contratos del Sector Público, aprobado por la Ley 9/2017 de 8 de noviembre el, excluye del ámbito de la misma a los convenios que celebre la Administración con personas físicas o jurídicas sometidas al derecho privado, siempre que su objeto no esté comprendido en el de los contratos típicos regulados en dichas leyes o en normas administrativas especiales.

IV.- Que, hallándose las personas jurídicas comparecientes totalmente de acuerdo en el otorgamiento del presente **CONVENIO DE COLABORACIÓN**, lo llevan a efecto de conformidad con las siguientes

 	INPRIMAKIA: IM-S02/2 Lankidetzeta Hitzarmena	Berrazt.: 3 Data: 2015/02/04 Or.: 56tik 41.a
---	---	--

CLÁUSULAS

PRIMERA.- OBJETO DEL CONVENIO

El objeto del presente Convenio es establecer un régimen de colaboración entre el AYUNTAMIENTO DE OIARTZUN y OARSOALDEA para el desarrollo de diversos programas en las siguientes áreas de interés general y recíproco de ambas entidades:

- a. ESTRATEGIA DE DESARROLLO ECONÓMICO Y TERRITORIAL
 - Fomento del desarrollo y regeneración de la industria y servicios vinculados.
- b. ATENCIÓN A LAS PERSONAS
 - La atención a las personas, sector de oportunidad
 - Impulso de la inserción sociolaboral de colectivos desfavorecidos
- c. DESTINO OARSOALDEA
 - El sector turístico, actividad con potencial dado el atractivo de la comarca. El pequeño comercio, un aliado
- d. PROMOCIÓN DEL EUSKARA
- e. REGENERACIÓN URBANA Y MOVILIDAD
- f. SERVICIO DE CONSUMO

SEGUNDA.- DURACIÓN

Este Convenio de Colaboración resulta de aplicación, inicialmente, durante el ejercicio presupuestario 2026 y extiende su vigencia hasta la fecha de la finalización y justificación de los programas desarrollados al amparo del mismo.

TERCERA.- OBLIGACIONES DEL AYUNTAMIENTO

1.- El AYUNTAMIENTO DE OIARTZUN se obliga, en base al crédito presupuestario existente en el ejercicio 2026, a financiar los programas de actividades propuestos por OARSOALDEA y en los términos que constan en el **ANEXO** de este Convenio. Ambas partes dejan constancia de que las citadas transferencias económicas no están destinadas a la financiación de déficit de explotación o gastos generales de funcionamiento de OARSOALDEA sino a la ejecución de proyectos concretos al amparo de este Convenio.

2.- El crédito presupuestario aprobado para este Convenio de Colaboración y, en consecuencia, el límite de las transferencias para la financiación de las actividades a realizar por OARSOALDEA en desarrollo del mismo, asciende a 416.569,60 euros.

CUARTA.- OBLIGACIONES DE OARSOALDEA

1.- OARSOALDEA se obliga al diseño y ejecución de los programas de actividades relacionados con el objetivo de este Convenio.

2.- OARSOALDEA se compromete a hacer pública en cada una de las actividades a desarrollar al amparo de este Convenio la financiación otorgada por el AYUNTAMIENTO.

QUINTA.- DEBER DE INFORMACIÓN. PROTECCIÓN DE DATOS.

06. GAIA

 	INPRIMAKIA: IM-S02/2 Lankidetzeta Hitzarmena	Berrazt.: 3 Data: 2015/02/04 Or.: 56tik 42.a
---	---	---

1.- Las partes se obligan a informarse recíprocamente sobre cualesquiera hechos o circunstancias que puedan producirse tras la firma del Convenio y que tengan relación con los objetivos perseguidos en el presente Convenio de Colaboración.

2.- Las partes firmantes se comprometen a tratar los datos de carácter personal a que, en su caso, tengan acceso o sean objeto de cesión en el de aplicación de este Convenio, de conformidad con lo que establece Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, el Reglamento (UE) 2016/679 DEL Parlamento Europeo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos, así como con la normativa que lo desarrolla.

SEXTA.- COMISIÓN DE SEGUIMIENTO.

1.- Al objeto de garantizar el correcto cumplimiento del presente Convenio de Colaboración, las partes firmantes acuerdan poner en funcionamiento una Comisión de Seguimiento cuya composición será la siguiente:

- Dos personas designadas por el **AYUNTAMIENTO**.
- Dos personas designadas por **OARSOALDEA**.

2.- Las funciones de la Comisión de Seguimiento serán, además de las previstas en otras estipulaciones del presente Convenio, las siguientes:

- h) Realizar propuestas sobre diversos aspectos relacionados con el contenido del Convenio de Colaboración.
- i) Coordinar las actuaciones relacionadas con el correcto cumplimiento del Convenio.
- j) Recibir información de los miembros de la Comisión.
- k) Proponer los acuerdos y convenios para la puesta en marcha de proyectos.
- l) Realizar un seguimiento de los programas que se estén llevando a cabo.
- m) Estudiar todo tipo de iniciativas que se planteen a iniciativa de las partes comparecientes o de terceros.
- n) Cualesquiera funciones de naturaleza análoga.

3.- La Comisión de Seguimiento se reunirá siempre que cada una de las partes firmantes del Convenio lo considere oportuno.

4.- La Comisión de Seguimiento aprobará el calendario de pagos del convenio. Si no se decide lo contrario, al 30 de diciembre se habrá abonado el 80% del presupuesto. El último pago se realizará una vez que el Consejo de Administración haya aprobado las cuentas anuales del 2026. Para esta aprobación será necesario que la Comisión de Seguimiento apruebe previamente estas cuentas anuales y el informe de auditoría.

SÉPTIMA.- NOVACIÓN.

Los derechos y obligaciones reconocidos por las partes firmantes de este Convenio de Colaboración no podrán ser objeto de cesión, arrendamiento, usufructo, traspaso, etcétera, a terceras entidades sin autorización de las otras partes firmantes del Convenio.

OCTAVA.- INCUMPLIMIENTO DEL PRESENTE CONVENIO.

El incumplimiento grave de las obligaciones asumidas en el presente Convenio podrá llevar aparejado la resolución unilateral del mismo por cualquiera de las entidades comparecientes y, en su caso, la reparación de los daños causados.

06. GAIA

 	INPRIMAKIA: IM-S02/2 Lankidetza Hitzarmena	Berrazt.: 3 Data: 2015/02/04 Or.: 56tik 43.a
---	---	--

NOVENA.- NOTIFICACIONES.

1.- A los efectos de lo previsto en el presente Convenio de Colaboración se tendrán como domicilios de las entidades intervinientes los que figuran en el encabezamiento del mismo, a no ser que cualquiera de las partes contratantes hubiera notificado fehacientemente un nuevo domicilio.

2.- Las notificaciones previstas en el presente Convenio de Colaboración deberán realizarse de forma fehaciente.

DÉCIMA.- RESOLUCIÓN DE CONTROVERSIAS.

Las cuestiones litigiosas a que pueda dar lugar la interpretación, modificación, efectos, etcétera, del presente Convenio, serán resueltas en el seno de la Comisión de Seguimiento. Si ni hubiese acuerdo, para cualesquiera controversias será competente la jurisdicción contencioso-administrativa.

UNDÉCIMA.- NATURALEZA Y RÉGIMEN JURÍDICO.

El presente convenio tiene naturaleza administrativa y, de conformidad con lo establecido en el artículo 6 de la Ley de Contratos del Sector Público, queda fuera del ámbito de aplicación de la citada disposición legal.

DUODÉCIMA.- VIGENCIA

Este convenio será vigente desde el 1 de enero de 2020.

Y en prueba de conformidad, suscriben el presente documento por duplicado ejemplar en la fecha y lugar del encabezamiento.

En Oiartzun, a de de 2026.

AYUNTAMIENTO DE OIARTZUN

OARSOALDEA S.A.

Fdo.: Joana Mendiboure

Fdo.: Fernando Nebreda Díaz de Espada

06. GAIA

 	INPRIMAKIA: IM-S02/2 Lankidetzeta Hitzarmena	Berrazt.: 3 Data: 2015/02/04 Or.: 56tik 44.a
--	---	--

ANEXO

ESTRATEGIA DE DESARROLLO ECONÓMICO Y TERRITORIAL: reforzar los instrumentos de dinamización empresarial y acompañamiento ya existente en materia de innovación y desarrollo tecnológico así como posibilitar la interacción de las empresas con la innovación a través de un conjunto de equipamiento especializados e infraestructuras compartidas.

ATENCIÓN A LAS PERSONAS: Mejorar la calidad de vida de los habitantes de Oarsoaldea mediante el empleo, los programas de inserción sociolaboral y el consumo responsable.

DESTINO OARSOALDEA: Convertir la comarca de Oarsoaldea en un destino preferente y de calidad basándose en nuestra identidad cultural y en la competitividad de nuestras empresas turísticas; a través de un modelo de turismo sostenible que contribuya a generar empleo y riqueza de forma equilibrada, tanto en el espacio geográfico, como temporal.

PROMOCIÓN DEL EUSKARA: El objetivo de este departamento es aumentar y promover el conocimiento y sobre todo el uso del euskera en diferentes ámbitos de la comarca.

REGENERACIÓN URBANA Y MOVILIDAD: Se ocupa de impulsar la adecuación y mejora del patrimonio urbanizado y edificado existente, principalmente captando y gestionando vías de financiación que ayudan a sus ciudadanos en las obras de rehabilitación privada, así como de fomentar la movilidad sostenible desarrollando la red de bidegorris comarcal y coordinando las estrategias supramunicipales de transporte público para la comarca.

SERVICIO AL CONSUMIDOR: El objetivo es atender el conjunto de consultas y reclamaciones desarrollando para ello labores de información, mediación y traslado a Arbitraje o a Inspección

06. GAIA

 	INPRIMAKIA: IM-S02/2 Lankidetza Hitzarmena	Berrazt.: 3 Data: 2015/02/04 Or.: 56tik 45.a
---	---	--

	Ayuntamiento de Errenteria	Ayuntamiento de Lezo	Ayuntamiento de Oiartzun	Ayuntamiento de Pasaia
Presupuesto	1.110.368,95 €	448.038,37 €	555.665,75 €	634.902,07 €
Encargo	286.251,88 €	88.258,15 €	139.096,15 €	139.096,15 €
Atención a las personas	177.933,00 €	76.257,00 €	127.095,00 €	127.095,00 €
Destino Oarsoaldea	72.354,47 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €
Estrategia para el desarrollo económico y territorial	11.962,11 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €
Regeneración urbana y movilidad	24.002,30 €	12.001,15 €	12.001,15 €	12.001,15 €
General	824.117,07 €	359.780,22 €	416.569,60 €	495.805,92 €
Atención a las personas	185.986,38 €	112.338,70 €	123.516,02 €	146.530,66 €
Atención al consumidor	43.419,12 €	17.324,67 €	13.596,89 €	24.780,22 €
Destino Oarsoaldea	125.826,17 €	59.819,24 €	85.063,50 €	121.530,27 €
Estrategia para el desarrollo económico y territorial	265.945,80 €	74.710,99 €	85.790,49 €	79.719,83 €
Euskera	127.378,75 €	42.154,47 €	54.966,69 €	68.385,83 €
Organización y elementos transversales	509,15 €	509,15 €	509,15 €	509,15 €
Regeneración urbana y movilidad	75.051,70 €	52.923,00 €	53.126,85 €	54.349,95 €
Total	1.110.368,95 €	448.038,37 €	555.665,75 €	634.902,07 €

08. GAIA

PLANTILA

LAN-KONTRATUPEKOAK					
IZENA	PLAZA	HUTSA	ESKALA	AZPIESKALA	MOTA
HEZITZAILE	11	0			

LANPOSTUEN ZERRENDA

Izena:	Haur-hezitzailea
Izaera:	Lan-kontratupekoa
Dotazioa:	11
Titulazioa:	– Haur-hezkuntzako goi-mailako teknikari titulua. – Haur Hezkuntza espezialitateko maisu/maistra titulua. – Haur-Hezkuntzako graduaren titulua.
HE:	C1/C1
Derrigortasun-data	2026/05/27
Ordainsaria:	32.811,52 €
Dedikazioa:	Arrunta

Izena:	Kontratazioko teknikaria-letradu
Izaera:	Funtzionarioa
Dotazioa:	1
Taldea/azpitaldea:	A/A1
Eskala:	Administrazio berezia/ administrazio orokorra
Azpieskala:	Teknikoa
Mota:	Goi mailakoa
Titulazioa:	Zuzenbideko gradua
HE:	C2/C2
Derrigortasun-data	2004/12/22
Lanpostu mailako osagarria:	26
Berariazko osagarria:	27.401,31 €
Dedikazioa:	Arrunta
Hornitzeko sistema:	Lehiaketa (EAEko administrazio publikoetako enplegatuak barne)

10. GAIA

III. ERANSKINA

9.7 bis Industria-poligonoetako hondakinen bilketa eta tratamenduagatiko tasa

1. artikulua. Zerbitzuaren xedea

Oñartzungo udalerrian jarduera ekonomikoetarako erabilera duten komertzioek, enpresek eta industriek sortzen dituzten udal-hondakinak bildu eta tratatzeko zerbitzua emateagatik 2026. urtean ordaintzen diren tasak arautzea du epigrafe honek.

2. artikulua. Aplikazio-eremua

Tasa honen aplikazio-eremua Oñartzungo udalerriko industria-poligonoak dira.

3. artikulua. Ordaintzera derrigortua

- 1) Ordenantza honetan jasotako tasak ordaintzeko printzipio orokorra lokalaren unitatearena da, bertan adierazten diren berariazko aurreikuspenak izan ezik.
- 2) Higiezin berean erabilera indibidualizatuak eta/edo edozein modutan bereiziak izan ditzaketen lokalak daudenean eta horietan jarduera desberdinak batera gauzatzen direnean, jarduera horietako bakoitzari dagokion tasa ordainduko da.
- 3) Aurreko paragrafoan jasotako kasuan jarduera horiek titular desberdinek egiten badituzte, bakoitzak dagokion tasa ordainduko du, kasu bakoitzean aplikatzekoa den tarifaren arabera.
- 4) Baldin eta eraikin batean erabilera komunitarioko edukiontziak badaude, zerbitzu horri dagokion tasak eraikin horretarako jabe-erkidegoari kobratuko zaizkio.

4. artikulua. Oinarria

Kuotak kalkulatzeko, kontuan hartuko dira lokalen azalerak, zerbitzuaren erabiltzaile bakoitzari emandako edukiontzi kopurua eta bakoitzak bilketa-zerbitzua zenbat aldiz erabiltzen duen. Hauek dira kontzeptuak:

- Azalera: lokal edo establezimendu bakoitzaren metro karratu kopurua. Azalera handiko enpresentzat, gehienez 2.000 m² izango dira.
- Edukiontzi kopurua: Udalak zerbitzuaren erabiltzaile bakoitzaren eskura jartzen duen edukiontzi kopurua, hondakinak sortzeko benetako beharraren arabera.
- Zerbitzu-unitateak: erabiltzaileak edukiontzi bat entregatzen duen bakoitzean, bilketa-zerbitzuak hustu dezan (hustuketak).

5. artikulua. Tarifak

Aplikatu diren tarifak I. eta II. eranskinetan zehazten dira. Horiek aurreko artikuluan izendatutako irizpideak jarraituko dituzte. Hauek dira irizpideak:

- 1) Lokal edo establezimendu bakoitzak duen azaleraren metro karratu kopurua.
- 2) Hondakinak isurtzeko Udalak erabiltzailearen eskura jartzen duen edukiontzi kopurua edo erabiltzaileak, zerbitzua jasotzeko eskubidea duten jarritako edukiontziak.
- 3) Emandako zerbitzu-unitate bakoitzeko; hau da, edukiontzi bakoitza husten den bakoitzean.

6. artikulua. Tasaren kuota

Ordaindu beharreko kuota honako osagai hauen baturaren emaitza izango da:

- 1) Eranskinean ezarritako tarifa metro koadroko, lokal edo establezimendu bakoitzaren azaleraren metro karratu guztiez biderkatuta.
- 2) Eranskinean ezarritako tarifa erabiltzaileen eskura jarritako edukiontzi bakoitzeko, benetan dituen edukiontzi kopuru osoarekin biderkatuta.
- 3) Eranskinean ezarritako tarifa zerbitzu-unitate bakoitzeko, benetan emandako zerbitzu-kopuruarekin biderkatuta.

7. artikulua. Likidazioa

Tasak hiru hilean behin likidatuko dira.

8. artikulua. Indarraldia

Epigrafe honek 2026ko urriaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak, eta indarrean jarraituko du indargabetzea edo aldatzea erabaki arte.

Ondoko bi eranskinetan Oíartzungo industria-poligonoetan udal-hondakinak bildu eta tratatzeko tarifak daude.

I. ERANSKINA

INDUSTRIA-POLIGONOETAN UDAL-HONDAKINAK BILTZEKO ZERBITZUA

TASA APLIKAGARRIAK

Kodea	Tarifaren deskribapena	Hiruhilekoaren zenbatekoa (€)
1	Lokal edo establezimendu bakoitzaren metro koadro bakoitzeko	0,23
2.1.1	Erabiltzaileen eskura jarritako 1.100 litro arteko inertearen edukiontzi bakoitzeko	26,40
2.1.2	Erabiltzaileen eskura jarritako 360 litro arteko inertearen edukiontzi bakoitzeko	17,60
2.2.1	Errefusa frakzioa jasotzeko eskubidea duten erabiltzaileen eskura jarritako 1.100 litro arteko edukiontzi bakoitzeko	60,00
2.2.2	Errefusa frakzioa jasotzeko eskubidea duten erabiltzaileen eskura jarritako 360 litro arteko edukiontzi bakoitzeko	37,50
2.2.3	Errefusa frakzioa jasotzeko eskubidea duten erabiltzaileen eskura jarritako 120 litro arteko edukiontzi bakoitzeko	10,00
2.3.1	Biohondakinen frakzioa jasotzeko eskubidea duten erabiltzaileen eskura jarritako 1.100 litro arteko edukiontzi bakoitzeko	26,40
2.3.2	Biohondakinen frakzioa jasotzeko eskubidea duten erabiltzaileen eskura jarritako 360 litro arteko edukiontzi bakoitzeko	17,60

Kodea	Tarifaren deskribapena	Hiruhilekoare n zenbatekoa (€)
2.3.3	Biohondakinen frakzioa jasotzeko eskubidea duten erabiltzaileen eskura jarritako 120 litro arteko edukiontzi bakoitzeko	8,00
2.3.4	Biohondakinen frakzioa jasotzeko eskubidea duten erabiltzaileen eskura jarritako 40 litro arteko edukiontzi bakoitzeko	3,50
3.1	Frakzio inerte biltzeko emandako 1.100 litro arteko edukiontzia hesturaketa bakoitzeko, betiere material birziklagarri ez bada	15,00
3.2	Frakzio inerte biltzeko emandako 360 litro arteko edukiontzia hesturaketa bakoitzeko, betiere material birziklagarri ez bada	12,00
4.1.1	1.100 litro arteko edukiontzia hesturaketa bakoitzeko, betiere material birziklagarri ez bada	36,30
4.1.2	1.100 litro arteko edukiontzia hesturaketa bakoitzeko, material birziklagarriak izateagatik errekargua aplikatzen zaionean*	60,00
4.2.1	360 litro arteko edukiontzia hesturaketa bakoitzeko, betiere material birziklagarri ez bada	21,78
4.2.2	360 litro arteko edukiontzia hesturaketa bakoitzeko, material birziklagarriak izateagatik errekargua aplikatzen zaionean*	35,00
4.3.1	120 litro arteko edukiontzia hesturaketa bakoitzeko, betiere material birziklagarri ez bada	6,23
4.3.2	120 litro arteko edukiontzia hesturaketa bakoitzeko, material birziklagarriak izateagatik errekargua aplikatzen zaionean*	20,00
5.1	1.100 litro arteko edukiontzia hesturaketa bakoitzeko	6,60
5.2	360 litro arteko edukiontzia hesturaketa bakoitzeko	3,30
5.3	120 litro arteko edukiontzia hesturaketa bakoitzeko	1,65
5.4	40 litro arteko edukiontzia hesturaketa bakoitzeko	1,50
6.1	Erabiltzaileen eskura jarritako 1.100 litro arteko egurraren edukiontzi bakoitzeko	26,40
6.2	Erabiltzaileen eskura jarritako 360 litro arteko egurraren edukiontzi bakoitzeko	17,60
7.1	Erabiltzaileen eskura jarritako 1.100 litro arteko filmaren edukiontzi bakoitzeko	26,40
7.2	Erabiltzaileen eskura jarritako 360 litro arteko filmaren edukiontzi bakoitzeko	17,60

Kodea	Tarifaren deskribapena	Hiruhilekoaren zenbatekoa (€)
8.1	Erabiltzaileen eskura jarritako 1.100 litro arteko porexaren edukiontzi bakoitzeko	26,40
8.2	Erabiltzaileen eskura jarritako 360 litro arteko porexaren edukiontzi bakoitzeko	17,60
9.1	Erabiltzaileen eskura jarritako 1.100 litro arteko flejeen edukiontzi bakoitzeko	26,40
9.2	Erabiltzaileen eskura jarritako 360 litro arteko flejeen edukiontzi bakoitzeko	17,60
10.1	Edukiontziak ez zaintzea edo garbitzea eta egoera txarrean edukitzea (identifikatutako intzidentzia bakoitzeko)	100,00
10.2	Ez ohiko garbiketak zerbitzuko	100,00

* Errefusaren hustuketa bakoitzaren tarifari gehitzen zaio.

II. ERANSKINA

INDUSTRIA-POLIGONOETAN UDAL-HONDAKINAK BILTZEKO ZERBITZUA

TASA APLIKAGARRIAK

Eraikin kolektiboetan kokatutako bulegoak eta enpresa txikiak

Kodea	Tarifaren deskribapena	Hiruhilekoaren zenbatekoa (€)
11	50 m ² -ra arteko azalera duten lokal edo establezimenduak	63,35
12	51 m ² -tik 100 m ² -ra	75,93
13	101 m ² -tik 150 m ² -ra	91,09
14	151 m ² -tik 200 m ² -ra	109,40
15	201 m ² -tik 250 m ² -ra	131,27
16	250 m ² baino gehiago	157,59



IV. ERANSKINA

9.15 Udal Musika Eskolaren zerbitzua emateagatiko tasa

1. artikulua. Oinarria eta izaera

Oiartzungo Udalak, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen foru araudian ezarritakoarekin bat etorritik, Udal Musika Eskolaren zerbitzua emateagatiko tasa ezartzen du, eranskin honetan jasotako baldintzetan.

Tasa honen bidez arautzen dira Udal Musika Eskolako zerbitzuak erabiltzeagatik ordaindu beharreko matrikulak, hileko kuotak, hobariak eta kudeaketa-arauak.

2. artikulua. Zerga-egitatea

Tasa honen zerga-egitatea da Oiartzungo Udal Musika Eskolaren zerbitzua ematea, ikasleek edo haien legezko ordezkariak hala eskatuta edo izen-ematea formalizatuta.

Zerbitzuaren barruan sartzen dira Udal Musika Eskolak eskaintzen dituen musika-ikasketak, irakasgaiak, espezialitateak, interpretazio-taldeak, musika-hizkuntza, abesbatza, tailerrak eta antzeko jarduerak, 64/2024 Dekretuak, Udal Musika Eskolaren antolaketa pedagogikoak eta Udal Musika Eskola arautzen duen Erregelamenduak ezartzen dutenaren arabera.

3. artikulua. Subjektu pasiboak

Tasa ordaindu behar dute, zergadun gisa, Udal Musika Eskolako zerbitzuen erabiltzaile edo onuradun diren pertsonak.

Ikaslea adingabea bada, ordainketa-betebeharra haren gurasoek, tutoreek edo legezko ordezkariak izango dute.

4. artikulua. Sortzapena

Tasa ikasturterako matrikulazioa formalizatzen denean sortuko da matrikularen kontzeptuan.

Hileko kuoten kasuan, tasa zerbitzua ematen den aldia sortuko da, ordenantza honetan eta Musika Eskolaren kudeaketa-arauetan ezarritako baldintzetan.

5. artikulua. Matrikula

Matrikula bakarra izango da ikasturte bakoitzean, izen-ematea formalizatzeko, hautatutako irakasgai kopurua edozein dela ere.

Matrikularen zenbatekoa honako hau izango da:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Matrikula	50 €

Matrikula izen-ematea baieztatzeko unean ordainduko da. Ez da hobarituko eta, oro har, ez da itzuliko.

Ez da inolako matrikularik onartuko, eta ez da formalizatuko, eskatutako dokumentazioa aurkezten ez bada.

Musika Eskolak antolatzen dituen tailerretan parte-hartzeko ere matrikula ordaindu beharko da.

6. artikulua. Hileko kuotak

Dagokion tasa hilero ordainduko da, aurrez eta banku-helbideratzearen bidez.

Ikasturteko irakasgaien kuotak 10 hilabetetan ordainduko dira, irailetik ekainera bitartean, biak barne.

Kuotak hilero kobratuko dira, oro har hilaren 15ean, edo hurrengo egun baliiodunean, hala badagokio.

Ordainketa banku-helbideratzearen bidez egingo da, ikasleak edo haren legezko ordezkariak izen-ematea formalizatzerakoan emandako kontuan.

7. artikulua. Tarifak

2026-2027 ikasturterako Udal Musika Eskolako tasak eta matrikulak honako hauek izango dira:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Matrikula	50 €
Musika Tailerra hilean behin 45'	6 €
Musika Tailerra astean behin 45'	12 €
Musika Tailerra astean bitan 45'	24 €
Musika-hizkuntza astean behin 45'	22 €
Taldeak astean behin 45'-60'	25 €
Abesbatza astean behin 45'	22 €
Espezialitatea astean behin, II. maila	38 €
Espezialitatea astean behin, III. maila	43 €
Espezialitatea astean behin, IV. maila	48 €

64/2024 Dekretuak maila bakoitzean ikasleek derrigorrez egin beharreko irakasgaiak ezartzen ditu. Horren arabera, ikasle bakoitzari dagokion kuota bere ibilbide pedagogikoaren eta matrikulatutako irakasgaien arabera zehaztuko da.

Tarifa horiek ikasgai edo zerbitzu-unitate bakoitzari lotuta daude, eta ikasle bakoitzak egiten duen ibilbide pedagogikoaren arabera aplikatuko dira. 64/2024 Dekretuak maila bakoitzean derrigorrez egin beharreko irakasgaiak ezartzen ditu, eta horiek kontuan hartu dira diru-sarreraren aurreikuspena egiteko.

Musika Eskolak jardunaldiak, hitzaldiak, tailer bereziak edo bestelako jarduera osagarriak antolatu ahal izango ditu.

Tailerrek, aurreko taulan adierazitako prezioak izango dituzte, beren iraupenaren eta saioen maiztasunaren arabera.

Aurreikusi gabeko jarduera berezirik antolatuz gero, eta jarduera horrek tarifa berezia behar badu, dagokion proposamena udalaren ohiko prozeduraren arabera izapidetuko da, hala badagokio dagokion batzorde informatzailean aztertuta eta organo eskudunak onartuta.

8. artikulua. Alta epez kanpo

Ikasturtea hasita dagoenean Musika Eskolan izena emateko aukera egon ahal izango da, betiere Eskolako talde edo espezialitateetan plaza hutsak badaude eta antolaketa pedagogikoak aukera ematen badu.

Kasu horretan, ikasleak matrikula osoa ordaindu beharko du, baita dagokion ikastaroaren kuota ere, ordenantzan eta Musika Eskolaren erregelamenduan ezarritako irizpideen arabera. Kuotaren kasuan, alta ematen duen hilabetetik aurrea ordainduko du, alta hilabetea barne.

9. artikulua. Bajak

Ikasleak baja eskatu ahal izango du Udal Musika Eskolaren Erregelamenduan ezarritako moduan.

Baja ikaslearen gurasoek, tutoreek edo ikasle adinez nagusiak eskatzen badute, baja idatziz formalizatu beharko da Eskolako Idazkaritzan, horretarako ezarritako inprimakia erabiliz, hilabete bakoitzeko 15a baino lehen, ezinbesteko kasuetan salbu.

Baja ez da eraginkorra izango dagokion baja-orria sinatuta aurkezten ez bada, nahiz eta telefonoz edo posta elektronikoz jakinarazi.

Baja formalizatuta ere, dagokion hiruhileko kuota ordaindu beharko da, Erregelamenduan jasotakoaren arabera.

Ikasturteko hiruhilekoak honakoak izango dira:

1. Iraila-abendua, biak barne.
2. Urtarrila-martxoa, biak barne.
3. Apirila-ekaina, biak barne.

Matrikula ez da itzuliko, salbu eta zerbitzua ez ematea Udalarari edo zerbitzuaren antolakuntzari egotz dakioken arrazoiren baten ondorio bada.

10. artikulua. Itzulketak

Oro har, matrikularen zenbatekoa ez da itzuliko.

Kuoten kasuan, zerbitzua ez bada ematen ikasleari egotzi ezin zaion arrazoiren batengatik, dagokion zenbatekoa itzultzea edo ez likidatzea aztertuko da, kasuan kasuko egoeraren arabera.

Ikasleak izena eman, bere edo bere familiaren ahalmen ekonomikoaren arabera hobaria eskatu eta, ondoren, hobaria ez badagokio eta baja ematea erabakitzen badu, matrikularen kontzeptua ordaintzeko betebeharra ez da baliogabetuko.

11. artikulua. Ez-ordaintzeak

Finkatutako tasa ez ordaintzea, bidezko arrazoirik gabe, baja emateko arrazoia izan daiteke.

Hilabete bateko edo pilatutako bi hilabeteko ez-ordaintzea gertatzen bada ikasturtean zehar, Eskolako Zuzendaritzak gurasoei, tutoreei edo ikasle adinez nagusiari egoeraren berri eman beharko die gutxienez 15 egun lehenago, eta ordainketa egiten ez bada baja emango zaiela ohartaraziko die.

Borondatezko epean ordaindu gabeko ordainagiriak Udaleko Diru-bilketa Zerbitzuari igorri ahal izango zaizkio, premiamendu bidezko prozedura hasteko, dagozkion errekaru eta legezko ondorioekin.

Ordainketa egin ezean, Udalak dagozkion dirubilketa-jarduketak izapidetu ahal izango ditu. Horrek ez du eragotziko Musika Eskolaren Erregelamenduan aurreikusitako baja-prozedura aplikatzea.

12. artikulua. Hobariak

Ahalmen ekonomikoaren arabera, %50eko hobaria aplikatu ahal izango da.

Hobaria ez da matrikularen kontzeptuan aplikatuko. Hileko kuotetan aplikatuko da, gehienez 10 hilabeteko kuotetan, baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren.

Hobaria 64/2024 Dekretuak agindutako II. eta III. mailako ikasketak egiten dituzten ikasleei aplikatuko zaie.

13. artikulua. Hobariaren onuradunak eta errenta-mugak

Hobariaren onuradunak izango dira Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren onuradun diren bizikidetza-unitateak edo pertsonak, bai eta ondorengo diru-sarrera mugak gainditzen ez dituzten bizikidetza-unitateak edo norbanakoak ere, 25 urte edo gorakoen kasuan:

Kide kopurua	Diru-sarreraren muga
1	LAGS
2	LAGS + LAGSaren %30
3	LAGS + LAGSaren %40
4	LAGS + LAGSaren %50
5 edo gehiago	LAGS + LAGSaren %60

LAGS: Lanbide Arteko Gutxieneako Soldata.

14. artikulua. Bizikidetza-unitatea eta gaitasun ekonomikoa

Gaitasun ekonomikoa errenta-mailaren arabera kalkulatu da.

Erabiltzailea 25 urte edo gorakoa bada, ikasturtea hasten den urteko urtarrilaren 1ean, haren gaitasun ekonomikoa hartuko da kontuan.

Erabiltzailea 25 urtetik beherakoa bada, ikasturtea hasten den urteko urtarrilaren 1ean, bizikidetza-unitatearen gaitasun ekonomikoa hartuko da kontuan.

Erabiltzailea 25 urtetik beherakoa denean, bizikidetza-unitatea osatuko dute etxebizitza berean erabiltzailearekin erroldatutako gurasoek eta 25 urtetik beherako anai-arrebek.

Gurasoak bananduta badaude eta zaintza partekatua badago, bizikidetza-unitatea bi gurasoek osatuko dute, nahiz eta horietako bat erabiltzailearekin erroldatuta ez egon.

Errenta-kopurua, erabiltzaile motaren arabera banakakoa edo bizikidetza-unitatearena, diru-sarreraren kopurua izango da. Errenta Aitorpeneko 34. laukitxoan adierazitakoa hartuko da kontuan.

Diru-sarrerak kalkulatzeko, aurreko ekitaldiko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Aitorpenaren kontzeptu hauen batura hartuko da kontuan:

- Lanaren errenta.
- Jarduera ekonomikoen errentak.

Errenta Aitorpena egiten ez bada, baliozko edozein bitartekoren bidez egiaztatutako diru-sarrerak hartuko dira kontuan.

15. artikulua. Hobaria eskatzeko epea eta lekua

Hobaria Oiartzungo udalaren egoitza elektronikoan edo Herritarren Arretarako Zerbitzuan eskatu beharko da, irailaren 1etik 15era bitartean.

Eskaera normalizatuan adieraziko da zein dokumentazio kontsultatuko duen Udalak NISAE elkarreragingarritasun-nodoaren bidez, eta, hala badagokio, interesdunak aurkeztu beharko duen dokumentazioa.

16. artikulua. Dokumentazioa eta datuen kontsulta

Hobaria eskatzeko, kasuan kasu, honako dokumentazioa aurkeztu edo kontsultatuko da:

- Elkarbizitza-ziurtagiria.
- Familia-liburua, elkarbizitza-agiriarekin bat ez datozen kasuetan.
- Familia-liburua eta bizi-agiriaren eta egoeraren ziurtagiria, gurasobakarreko familien kasuan.
- Bizikidetza-unitateko kide guztien egoera ekonomikoa egiaztatzen duten agiriak.
- Azken Errenta Aitorpena, bateratua edo bakoitzari dagokiona.
- Errenta Aitorpena egitetik salbuetsita daudenen kasuan, zerga-informazioa jasotzen duen ziurtagiria.
- Langabezia-egoeran 6 hilabete edo gehiago daramatenen kasuan, Lanbideren ziurtagiria datu ekonomikoekin eta lan-bizitzaren txostena.
- Langile autonomoen kasuan, dagokion dokumentazio ekonomikoa.
- Soldatetatik edo beste kontzeptu batzuetatik eratorritako diru-sarreraren ziurtagiriak, azken hiru nominak eta lan-bizitzaren txostena.
- Pentsioaren agiria, hala badagokio.
- Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren onuradun izatearen egiaztatzea.
- Banandutako bikoteen kasuan, Errenta Aitorpenaz gain, banaketa-sententzia eta hitzarmen arautzailea.

39/2015 Legearen 28. artikuluan eta 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, interesdunak aurka egiten ez badu, Udalak zuzenean kontsultatuko du, NISAE elkarreragingarritasun-nodoaren bidez, hobaria aplikatzeko baldintzak betetzen direla egiaztatze behar den informazioa, ondoren zerbitzuen arabera:

- Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionala - Txartel Sozial Digitalaren (TSD) prestazioen kontsulta.
- Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionala - Datu ekonomikoen kontsulta (TSD).

- Foru Ogasunak - PFEZaren kontsulta.
- Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionala - Gizarte-prestazio publikoen kontsulta.
- Gipuzkoako Foru Aldundia - PFEZaren kontsulta.
- LANBIDE - Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentaren kontsulta.
- Eusko Jaurlaritza - Familia Ugariaren tituluen kontsulta.

Eskatzaileak bere datuak kontsultatzeari uko egin ahal izango dio. Kasu horretan, dagozkion agiriak aurkeztu beharko ditu.

17. artikulua. Likidazioa, ordainketa eta kobrantza

Matrikula izen-ematea baieztatzeke unean ordainduko da.

Hileko kuotak banku-helbideratzearen bidez kobratuko dira, ikasturteko 10 hilabeteetan, aurrez.

Kontratazio-espedientean jasotakoaren arabera, zerbitzua ematen duen adjudikaziodunak ikasleek ordaindutako tasak eta matrikulak Udalari ordainduko dizkio hilero, pleguetan, Erregelamenduan eta udal jarraibideetan ezarritako moduan.

Hilero, kobrantzaren justifikazioarekin batera, ikasleen eta kontzeptuen zerrenda aurkeztuko da, gutxienez honako informazioarekin: ikaslea, matrikulatutako irakasgaiak, aplikatutako tarifak, hobariak, bajak, altak eta kobratu gabeko zenbatekoak.

18. artikulua. Jarduera osagarriak edo ez-iraunkorrak

Udal Musika Eskolak jardunaldiak, hitzaldiak, tailer bereziak, ikastaro ez-iraunkorrak edo bestelako jarduera osagarriak antolatu ahal izango ditu.

Tailerrak badira, 7. artikuluko taulan adierazitako prezioak izango dituzte, beren iraupenaren eta maiztasunaren arabera.

Aurreikusi gabeko jarduera berezirik antolatuz gero, eta jarduera horrek tarifa berezia behar badu, dagokion proposamena udalaren ohiko prozeduraren arabera izapidetuko da, hala badagokio dagokion batzorde informatzailean aztertuta eta organo eskudunak onartuta.

19. artikulua. Indarrean sartzea

Eranskin honetan jasotako tasak, matrikulak, hobariak eta kudeaketa-arauak 2026-2027 ikasturtetik aurrera aplikatuko dira, ordenantza fiskalen aldaketa behin betiko onartu eta argitaratu ondoren, eta indarrean jarraituko dute aldatu edo indargabetu arte.



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	2026ID370006-Akta/Akta (OIARTZUNGO UDALA)